

Herririk Herri |3|

Argiñetako nekropolia eta ingurua zundatzen, benetako balioa ezagutzeko

Kirola |20|

Dani Díaz: "Ez nuen uste hain denbora gutxian hain ondo errendituko nuenik"



Berbaz |9|

J. Elgeta: "Maristetan langileon beharrei erantzuteko lanean gabiltza"




Hainbat bisitari jaso ditu Durangok uda partean. Kepa Aginako

Turismo Bulegoko bisitak %40 igo dira aurtengo udan Durangon

- > Guztira, 2.303 bisita jaso ditu Lariz Dorreko bulegoak aurtun, ekainean hasi eta abuztura bitartean
- > Jakitera emandako datuen artean nabarmentzekoa da Durangora etorritako katalanen kopurua

02

Gehigarriak



Ghetto-koekin, gaur gaueko Elorrioko kontzertuari buruz

KULTURA• Elorrio, Bergara, Atxondo eta Abadiñoko musikariek osatzen duten Ghetto taldekoekin egon gara euren entsegu lokalean. Raimundo Amador-en aurretik joko dute, gaur, Elorrioko jaietan.

11

•Iurreta

Eraikinak konpontzeko diru-laguntza eskatzeko aukera

5

•Atxondo

Etxebizitza sozialetako lanei ekingo diete hile honetan

8



HERRIRIK HERRI >

■ DURANGO

Katalunia, Madril eta Frantziatik jaso ditu bisitari gehien Turismo Bulegoak

Ekainetik abuztura Turismo Bulegoak hartu dituen lagunen kopuruak %40 egin du gora aurten

Ekainean, uztailean eta abuztuan Turismo Bulegora kontsultak egitera joan direnen kopurua %40 igo da aurten iazko datuekin alderatuz gero. Bisitari gehien Bartzelona, Madril eta Valentziatik jaso dituzte Estatu mailan; atzerriko datuei dagokionez, Frantziatik etorri da turista gehien.

Katalunia eta Frantziatik etorriak asko nabarmentzen dira estatutik eta atzeritik jasotako bisitarien artean

Azken hiruhilekoan 2.303 lagunek erabili dute Turismo Bulegoa; iaz baino 647 lagun gehiagok. Horietarik gehienak Estatutik etorri dira: 1.010 lagun, kopuru osoaren %44. Gehienak, alde handiagaz, kataluniarrak dira; 344 guztira. Ondoren datoz Madril (189 bisita) eta Valentzia (110).

Atzeritik jasotako bisita kopuruak osoaren %15 hartzen du. Hemen ere lehenengo ageri den



Euskal Autonomia Erkidegotik jasotako bisitari gehienak Bizkaikoak dira. Kepa Aginako

nazioa nabarmentzen da. Frantziarrek 108 bider jo dute Turismo Bulegora; ondoren, Italia (45), Erresuma Batua (37) eta Alemania (18) datoz.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegotik jasotako kontsulta

Uztailean jaso duten bisita kopuruak bibidertu baino gehiago egiten du iazko kopurua

kopurua %16koa da. Horietako gehienak (%75) Bizkaitik etorri dira. Oro har, bisita kopurua hile guztietan hasi den arren, uztaileko hazkundea azpimarragarria da, iazko kopurua bibidertu baino gehiago egin delako.

Kontsultarik gehienak aurrez aurre eta telefonoz egin badira ere, Turismo Bulegoak sortutako facebookaren bitartez zazpi kontsulta jaso dituzte azken hiruhilabetekoan. Hainbat izan dira e-mail bidez jasotakoak ere. ■ J.D.

DATUAK

Guztira: 2.303 bisita
Estatutik: 1.016
EAetik: 381
Atzeritik: 352

Estatutik

Katalunia: 344
Madril: 189
Valentzia: 110
Andaluzia: 109
Gaztela eta Leon: 48
Gaztela-Mantxa: 26
Asturias: 22
Aragoi: 21

Atzeritik

Frantzia: 108
Italia: 45
Erresuma Batua: 37
Alemania: 18
Herbehereak: 17
Argentina: 16
Belgika: 15
AEB: 15

Euskal Herritik

Bizkaia: 284
Gipuzkoa: 63
Araba: 33
Nafarroa: 32

HELDU ez desegiteko eskatu diote Jaurlaritzari

EAJk eta Aralarrek egin zuten mozioaren alde; PSE-EE izan zen kontra bozkatu zuen bakarra

Eusko Jaurlaritzari etorkinentzako HELDU zerbitzua ez kentzea eskatzen duen mozioa onartu dute azken udalbatzarrean. EAJ eta Aralarrek aurkeztu zuten mozioa. PP eta Talde Mistoa abstenitu egin ziren, eta PSE-EEK kontra bozkatu zuen. Mozioaren alde egin zutenek

“beste murrizketa sozial baten aurrean” gaudela salatu zuten. PSE-EEK zerbitzua ez dela desagertuko aipatu zuen; “kudeaketa pribatutik publikora pasatuko” dela. HELDUk, esaterako, etorkinei lan merkatutarako sarbidea erraztea zuen helburu. ■ J.D.

Trafikoan aldaketak biribilgunea asfaltatzeko

Barikuan, astelehenean eta martitzenean hainbat desbideratze egin beharko dira ibilgailuen Durangoko trafikoa, Landakoko biribilgunea egiten ari diren zonaldean. Izan ere, egun horietan Landako etorbidearen eta Francisco Ibarra kalearen artean egiten dabilzan biribilgunea asfaltatzeko lanak burutuko dituzte. Aldaketek, aipatutako kale bietan ez eze, Landako etorbidean eta Fray Juan de Zumarragan ere eragingo dute.



Eskualdeko albisteak,

AUDIOTEKA

BIDEOTEKA

eta gehiago...

www.anboto.org

ELORRIO



Udalak 10.000 eurogaz lagunduko du proiektua, eta Jaurilaritzak 20.000 eurogaz. J.Fernandez

Nekropolia eta inguruak zundatuko dituzte, benetako balioa ezagutzeko

Bilboko Museo Arkeologikotik jasotako eskaintza onartuta, zundaketak udazkenean hasi daitezke

Argiñetako nekropolian eta ondoko lurretan zundaketak egiten hasiko dira las-ter. Helburua inguru guztiaren balioa neurtzea eta ezagutzea da, ondoren, promozioari ekiteko.

Zundaketa horiek egiteko proposamena Bilboko Museoko zuzendari Iñaki Garciak egin zion udalari. Ideia interesgarria iruditu, eta aurrera jarraitzea erabaki zuten. Udalak 10.000 euroko diru-atala onartu du lan horietarako;

Eusko Jaurilaritzak ere lagunduko du proiektua, 20.000 eurogaz.

Orain arte, "ez dagune horren balioa bere osotasunean neurtuko duen azterketarik egin; nekropolia ez eze, bere inguruak ere zundatuko dituzte; ermita ingurua, orain aparkalekua egiten ari garen ingurua...". Horretara, tratamendu bateratua emanda, "inguru haren balioa jakingo dugu bere osotasunean", azaldu du Niko Moreno alkateak.

Ondoren, inguru horren promozio lanak hasiko dituzte. Etor-kizunean, herrigunean legez, auzoetan zehar ere ondare ibilbi-dea egin gura dute, eta ordurako baliagarria izango da orain egin-go duten azterketa. ■ J.D.

Orain arte egin barik zegoen nekropoliaren eta inguru guztiaren balioa jakitea ahalbidetuko duen zundaketa

Aukera Azoka gaur, Ferixa Nausikoen lehenengo egunean

Basilikako aterpean atondutako azokan mota guztietako produktuak erosteko aukera dago

Gaur hasi dituzte Ferixa Nausiko jaiak. Gaur, esate baterako, goizean goizetik iluntzeko 20:00 arte Aukera Azoka antolatu du Elorrioko Merkatarien Elkartek basilikako arkupean.

Urtero legez, denetariko standak ipini dituzte kiroldegiko luze-zabalean: janaria, gaztetxoentzako zein helduentzako arropak, lurrinak... Guztira, 15 stand inguru atondu dituzte, eta erakusten dituzten produktuak ohi baino merkeago erosteko aukera izango du bertaratzeko den bisitariak. Azokari lagunduz, goizean,

Gaur bertan, Gheto, Puro Chile eta Raimundo Amadorrek kontzertua eskainiko dute txosnagunean, 23:00etan hasita

11:00etatik 13:00etara globofexia saioa egongo da gaztetxoentzat eta arratsaldean, 17:30etik aurrera apparraren jaia egingo dute.

Domekan, 10:00etatik aurrera, Abere eta Nekazaritza Azoka egingo dute feriagunean

Gaurko gainerako ekitaldien artean, 23:00etatik aurrera txosnatan egongo diren kontzertuak bereiztu behar dira: Gheto eta Puro Chile taldeen ondoren Raimundo Amadorrek joko du.

Bihar, 19:00etan, auzoetatik plazara etorriko dira txarangak: Los Pasai, Ardoa Barrura eta El Despiste txarangek parte hartuko dute. Segidan, txupinazoa jaurtiko du futbol taldeak. Domekan, besteak beste, abere eta nekazaritza azoka egingo dute Feriagunean. ■ J.D.

Kiroldegia itxita irailaren 27ra arte, eraberritze lanak egiteko

Kiroldegiaren eraberritzea hiru urtetan gauzatu gura duten asmoa da, eta aurtengo lehenengo fasean igerilekuko aldagelak eta gimnasioa berriztatuko dituzte, 344.000 eurogaz. Lan horiek egiten astelehenean hasiko dira, eta horren ondorioz irailaren 27ra arte kiroldegia itxita egongo dela jakinarazi dute.

Aldagelatan dutxa kopurua gehituko dute, eta elbarrientzako egokituko dituzte horietako batzuk. Horrez gainera, aldagelako eta gimnasioko hormak eta zorua berriztatuko dituzte. Kiroldegiko sarreran ere berrizte lanak burutuko dituzte.

Udalak bazkide guztiei oharra bidali die etxera, egoeraren berri emanaz. Atzerapenik ezean, astelehenean, hilaren 6an, hasiko dituzte kiroldegia eraberritze-lanak. ■ J.D.

Aldagelak, gimnasioko hormak eta sarrera eraberrituko dituzte

Dantzariak erakustaldia eskaini zuten San Agustingo jaietan

Jende asko batu zen joan zen asteburuan San Agustinen ospatu zituzten jaietan. Eguerdiko mezaren ondoren, Betsaide dantza taldeak saioa eskaini zuen bertaratu zirenen gozagarri. Ondoren, auzo bazkaria egin zuten auzokideek.

Arratsaldean jaiak ez zuen etenik izan eta mus txapelketaren ondoren, umeentzako hainbat jolas prestatu zituzten. Azkenik, Luhartzen doinura dantza egiteko aukera izan zuten.



J.Ugalde

ALBERDI
HARATEGIA HARATEGIA
DURANGO

Bertako okela
Aurretiaz prestatutako janariak
Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

ODOLOSTETAN GAILEN - 2009
Eminencia en la elaboración de Morcillas
Alberdi Harategia

ALBERDI
prekozinatua

PLATERUENA

PLATERUENA IRAILA

2010 EGITARAUA



www.plateruena.net

03 OSTIRALA



GAUELEKTRONIKOA

OPENING PARTY

PIEK AKA PIEKFEIN cray, 1 labworks/Finmusika-Berlin

RUBEN COSTA Plateruena DJ's

IKER UNDERSOUND Hall of Fame Rec./Plateruena DJ's
22:00etan. Sarrera: 8 € (+ Flyer 5 €)

23 OSTEGUNA



ARDOKATA

EUSKAL ARDOEN
DASTATZEA

MIKEL GARAIZABAL enologarekin

20:00etan. GONBIDAPENAREKIN
Gonbidapenak eskatzeko: kultura@plateruena.net

10 OSTIRALA



MUSIKAKONTZERTUAK

BERTAN BEHERA
+ LAIN

22:00etan. Sarrera: 5 €

24 OSTIRALA



MUSIKAKONTZERTUAK

EH SUKARRA 20 URTE

22:00etan. Sarrera: 10 €

11 LARUNBATA



MUSIKAKONTZERTUAK

KUDAI
HIRA
AIUMEEN BASOA

22:00etan. Sarrera: 5 €

26 IGANDEA



AISIALDIA EUSKARAZ

JOLAS TXOKOA
KILIMISKA TALDEA

17:30etan. Sarrera doan.



18 ASTEARTEA



DANTZALDI BILTARIA

AIKO
ERROMERIA

19:00etan. Sarrera doan.

01 URRIA



MUSIKAKONTZERTUAK

ERIC FUENTES
(THE UNFINISHED SYMPATHY)

22:00etan. Sarrera: 8-10 €



ZINE ZIKLOA: GARAPENERAKO IHARDUNALDIK

28 ASTEARTEA

Ti Tsaj Xtalb'Al (Guatemala)

La agenda de las mujeres
en el proceso constituyente
en Bolivia (Bolivia)

Sacha Runa Yachay (Ecuador)

29 ASTAZENA

Far Away Future (Namibia)

Testigos de un etnocidio
(Kolonbia)

De volta a terra boa (Brasil)

Annoto enejutojo, el tiempo
(Venezuela)

30 OSTEGUNA

Warmis, Epunas, Mujeres de
Palabra (Bolivia)Tejuan uan xolalmej kampa
tinemij (Mexico)

Hitzaldia

SARRERA DOAN

URRIAN DATOZENAK: 7 TXINTXAUN KOLEKTIBOA 8 GAU ELEKTRONIKOA 21 SICK OF IT ALL + MADBALL 22 DURANGO 1936
23 KEROBIA 31 PERKELE

MALLABIA

Eskolako sukaldea eta jangela berrituta

Learreta-Markina herri ikastetxe-ko sukaldea eraberritzen jardun dute udako oporretan. Ikasturtea hasteko dagoela, altzariak jartzen dihardute sukaldean eta jangelan. Aitor Loiola Mallabiko alkateak azaldu duenez, “instalazioak oso ondo gelditu dira”.

Obrak amaitzeko, sukaldeko eta jangelako altzariak jartzea falta zaie. Ondoren, garbiketa egin beharko dute

Obren eraginez garbiketa egin beharko dute ikasleek, ikasturteari ekin aurretik. Umeak irailaren 7an dute eskolara bueltatzeko jarritako data. Egun horretarako dena gertu izatea itxaroten dute udal arduradunek. Sukaldeko aparailuak gasera lotu barik daudenez, egun batzuetan catering zerbitzua izango dute. Ondoren, eskolako sukalde berrian prestatutako janaria izango dute plateran herriko umeek.

Duela bi urtetik Mallabiko Udalak oporretan eskola egokitze-ko obrak egin ditu. “Ume kopuruak gora egin du”, adierazi du Loiolak. ■ J.G.

IURRETA



Beste enpresa batek egingo ditu egiteko dauden lanak.

Eraikinak atontzeko diru-laguntza eskea egiteko epea hasi da

Besteak beste, fatxadak konpondu eta oztopo arkitektonikoak kentzeko izango da laguntza

Aurten bigarren urtez iurretarek diru-laguntza eskatu ahaliko dituzte eraikinak konpontzeko hainbat obren kasuan. Zabaldu da dagoeneko epea, eta honako lanetarako emango du diru-laguntza udalak: eraikinetako fatxadak berrizatzeko, teilatuak konpontzeko, igogailua jartzeko eta oztopo arkitektonikoak kentzeko.

Udalak 30.000 euro gorde ditu diru-laguntza horiek emateko. Laguntzen bitartez obra-lizentzian ezarritako aurrekontuaren % 20 ordainduko du udalak, eta diru kopurua, gehienez, 10.000 eurokoa izango dela azaldu dute. Eraikinek 30 urte baino gehiago izan behar dute diru-laguntza jasotzeko. Iurretako bizilagunek azaroaren 30era arte edukiko dute laguntza eskatzeko aukera.

Ingurune publikoa zaintzeko eta herriko irisgarritasuna hobetzeko ordenantza berran barruan daude diru-laguntza

hauek. Ordenantza horren arabera, 10.000 euroko muga gainditzen ez bada, helburu bereko laguntza bat baino gehiago eskatu dezakete iurretarek.

Emandako laguntzak

Diru-laguntza hauen lehenengo deialdian lau eskaera aurkeztu zituzten iurretarek; bi eskaera fatxadak berrizatzeko eta beste bi igogailuak jartzeko. Udalak eskabide guztiak onartu zituen, eta guztira 26.335 euroko diru-laguntza eman zuen lanok egiteko. Udal arduradunek azaldu dutenez, diru horrek 60 herritarrei lagundu die eraikinetan egindako gastuak gutxitzen. Aurreko ekitaldia “oso positiboa” izan dela nabarmendu dute, eta laguntzagaz jarraitze-ko asmoa agertu dute. ■ A.U.

Joan zen ekitaldian lau eskari jaso zituzten, eta laurei eman zien diru-laguntza udalak

ZALDIBAR

Euskara ikasten jardun dutenentzako bekak eskainiko dituzte

2009-2010 ikasturteko ikasleek izango dute eskaria egiteko aukera, urriaren 13a baino lehen

Joan zen ikasturtean euskara ikastaroetan parte hartu zuten zaldibartarrek beka jasotzeko aukera izango dute, udalaren ekimenez. Bertan errolatuta egotea eta ikastaroetan asistentziaren %80 beteta izatea dira baldintzak.

Eskaria egiterakoan matrikularen ordainagiria aurkeztu behar da, baita euskaltegiaren informe zehatza ere: ikastaroen ordu kopurua, asistentzia eta urrats bakoitzeko fitxa barnebilduz. Bestalde, diru-laguntza sartu ahal izateko kutxa edo banketxeko kontu zen-

Matrikularen ordainagiria eta Euskaltegiaren informea aurkeztu behar dira

bakia eman beharko dute interesadutenek.

Bekaren zenbatekoa ikastaroaren trinkotasunaren arabera izango da: trinkotasun handikoetan, matrikularen %50eko

Bertan errolatuta egotea eta asistentziaren %80 beteta izatea dira baldintzak

baliokoa izango da; txikikoak hiru ataletan banatu dituzte: %75 (asistentziaren %80-90 artean beteta), %90 (asistentziaren %90etik gora) eta %100 (asistentziaren %100 beteta). Agiriak eta eskabideak aurkezteko azkeneko eguna urriaren 13a izango da. ■ M.O.

IZURTZA

Frontoiaren barnealdea atontzeko lanak burutzen

Herriko jaiak amaituta ekingo diete frontoia margotu eta aldagelak berrizteko beharrei

Jaien ondoren hasiko dituzte frontoia margotu eta aldagelak berriztea helburu duten lanak, 57.000 euroko aurrekontuagaz. Bizkaiko Foru Aldundiak emango du inbertsioaren %36 ordaintzeko diru-laguntza. Frontoiaren kanpoaldea berriztu zuten iaz tokiko inbertsioetarako diru-laguntzagaz finantzatuta, eta frontoiaren barnealdea atontzea da datozen asteetan hasiko dituzten obren helburua.

Txabola konponduko dute Herri basoetan dagoen artzain txabola konpontzeko diru-laguntza izango du udalak, aurtengo aurrekontuan jasotako inbertsioa laguntzeko. Jeltzaleen eta gobernaren botoekin onartu zuten aurrekontuan 25.000 euro jaso zituzten, eta aurrekontu proposamenaren alde bozkatu arren,

Lanen gastuen %36 Bizkaiko Aldundiaren diru-laguntzagaz ordainduko du udalak

inbertsio zehatz horregaz ez zedela ados azaldu zuten jeltzaleek. Egoera ekonomikoa kontuan hartuta, ez zitzaizela aproposa iruditu esan zuten jeltzaleek.

Gobernuak, bestetik, Mendi-gaineko artzain txabola herriaren ondarea dela eta konpondu ondoren herritarrek baliatzeko moduak bilatzeko asmoa zutela aurreratu zuen. Gobernuaren iritziz, orain konpondu ezean, jausteko arriskuan zegoen eraikina, eta “herriaren ondarea gordetzeko asmoagaz” konponduko dute. ■ I.E.



Horma margotu eta aldagelak berriztuko dituzte.

katerin ardoak
iñaki uribe
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
 saltsan.com

BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda
Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77


Betikoak
flexografia
ofizinarako zigiluak
fotolitoak
Bixente kapanaga, 9 • 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41

MAÑARIA

Mutxateko kobak ez ei du interes arkeologikorik

Orain hile batzuk Untzillatx mendiko Mutxate harrobiaren inguruan agertutako haitzuloari buruz Aralar alderdiak legebiltzarrean luzatu zuen eskaerari erantzunez, eremuak ez daukala "ezelako interes arkeologikorik" jakinarazi du Jaur-laritzako arkeologia zerbitzuak.

Durungaldeko GEMA espeleologia taldeko kideek eta arkeologo batek egin dute haitzuloaren azterketa

Mutxateko haitzuloan informazioa batzen Durungaldeko GEMA espeleologia taldeko kideek eta arkeologo batek jardun zuten ekainean. Azaldu dutenez, ez dago sedimentu metaketa berezirik haitzuloan, eta, adituen arabera, Untzillatxeko kareharrian agertutako haitzuloak ez dauka interes arkeologiko berezirik.

"Izatekotan", diote teknikariek, "interes geologikoa izan leza-ke eremuak", eta horren balorazioa egitea Jaur-laritzako beste departamentu baten egitekoa litzatekeela erantzun dute. ■ I.E.

Arruetan beste antena bat kendu behar dela ebatzi dute auzitegiek

Sententzia errekurritu egingo duela jakitera eman dute Mañariko udal arduradunek

Arrueta auzoko antenen auzian epaitegiek Orangen telefoniamugikorreko antena eraisteko agindua eman dute. Inguru horretan, aurretik, Movistar enpresaren antena bat ere botatzeko eskatu zuen apirilean Bilbo-ko Administrazioarekiko laugarren salaren epaiak. Udalak errekurritu egin zuen. Kasu honetan ere, auzitegiek azaltzen dutenez, "EAEko ingurumena babesteko legearen arabera jardura sailkatua izan

beharkolitzateke pertsonengan eta ingurumenean kalteak sorrarazi ditzakeen jardura delako, eta prozedura administratiboaren arabera udalak Osasun Sailaren eta Ingurumen Sailaren txostenak eskatu beharko lituzke". Auzokideak pozik agertu dira epaiarekin.

Arruetan bi antena hauek kentzeko eskatu dute auzitegiek. Udalak agindua bete beharrean "Vodafone leku horretan antena jartzeko baimena eman dio", auzokideek salatu dutenez. "Orain baimentzen dute Vodafone antenagaregun bestekokaleku batean dago, horiere ilegala, udalak berak deklaratu, eta desmantelatu baino lehenago baimena eman diote beste kokapen ilegale batean ezartzea".

Jaur-laritzako Industria Sailari txostena osatzea eskatu zion Mañariko Udalak ekainean



Ingurumenaren legean oinarrituta hartu du epaileak erabakia.

Helegitea aurkeztu dute

Uztail amaieran aipatutako sententziaren kontrako errekurtsua aurkeztu zuen udal gobernuak. Azaldu dutenez, epaileak sententzia honetan Orange-ren antena lekualdatzeko agindua eman badu ere, epaileak helegitea aintzat har-

tu eta udalaren argudioak onartzea da gobernuak itxaroten duena. Gobernu taldeak dioenez, bestalde, "Eusko Jaur-laritzako Industria Sailari gaiari buruzko txostena osatzea eskatu genion ekainean, eta antenak dauden lekuan ondo daudela erantzun dute". ■ I.E.

ABADIÑO



lazko jaietan, hainbat auzotar mahaiaren bueltan.

Auzotar guztien gustuak asetzeko proposamenak

Gaur, bihar eta etzirako jai egitarau oparoa eta aberatsa prestatu du Muntzaratz auzo elkarteak

Gaur iluntzeko 19:00etan donien-atxa altxatzen dutenetik, hiru egunetarako jai proposamenak topatuko ditu Muntzaratzera doanak, goiz, arratsalde zein gauez. Auzotar zein herritar guztiengan pentsatuta, ohiturazko hainbat hitzordu antolatu dituzte: jaiak hasteko, Kalitatea fundazioaren laguntzagaz parrillada egingo dute gaur, 20:30ean, eta Bizargorri taldeagaz dantzaldia egongo da Muntzaratzen, 21:30ean hasita.

Zapatuan eta domekan ere, goizetik gauera norberak gura arte jai-giroan egoteko aukerak izan-

go dira Muntzaratzen. Mozorro Eguna izango da biharkoa: buruhandiekin hasi eta diskotekagaz amaitzea da jai egitarauko proposamena. Gustu eta adin guztietako laguntzako ekitaldiak antolatu dituzte biharko, eta beste horrenbeste domekarako.

Auzoko jaiei hasiera emateko, donien-atxa altxatu ondoren parrillada egingo dute gaur, iluntzetik aurrera

GARAI

Farola berriak ipiniko dituzte San Migelen

Plaza inguruko argiztapena uda aurretik berritzu ondoren, San Migel eliza bueltakoari ekingo diote orain. Kontsumo baxuko LED argia —hainbat herritako semaforo berrietan ikusi daitekeena— erabiliko dute instalazio berrirako.

Asteon kudeaketako azken tramiteak egin eta gero, astelehenetik aurrera hasiko dira beharginak lanean. Egitasmoaren aurrekontua 76.345 eurokoa izango da.

Bestalde, lanekin jarraituz, trafikoari zabalik dago Garaizar-tik San Juanera doan errepidea, uda konpontzeko aprobetxatu dute-eta. Garai eta Iurretako udalen artean egin dute obra. ■ M.O.

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

HARATEGI
ARTISAU ERARA

ESPEZIALIZATUA

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

ZARATE ELEXPE

E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateylexpe.biz



muntzaratz 2010 jaiak

Barikua, 3

19:00 Donien-atxa altxatzea
20:30 Parrillada, kalitatea Fundazioaren laguntzagaz
21:30 Dantzaldia, Bizargorri taldearekin

Zapatua, 4

11:00 Buruhandiak
11:45 Mozorro lehiaketaren hasiera eta hasierako argazkia
12:00 Umeendako puzgarriak, zezen mekanikoa, motor elektrikoak
14:00 Paellen aurkezpena
16:00 Mus eta tute txapelketa
17:00 Azoka txikia
17:30 Umeendako tailerrak
21:00 Tortillen aurkezpena
22:00 Lehiaketen sari banaketa
22:30 Su Artifizialak
23:00 Diskoteka Dj-arekin

Domeka, 5

11:00 Zelai Alai Hipikako Poniak
11:30 Buruhandiak
12:00 Xakeko aldi baterako partidak
13:00 Kiki eta koko pailazoak
14:30 Herri bazkaria (txartelak okindegian salgai)
16:00 Igel-toka lehiaketa
16:30 Ludoketa kondaira (magic txapelketa, demo perudo, tsuro, warhammer 40000)
17:00 Disko txiki
19:00 Txokolatada

Zapatua, 11

12:00 Jaien amaierako luntxa (laguntzaileentzako)
16:00 Txirrindularitza-eskolen arteko proba



ABADIÑOKO
UDALA

Durangaldean labor

Irailean ere udako dantzaldiak egingo dituzte Durangon

Durangoko Udaleko Adinekoen Sailak jakinarazi duenez, iraileko igandeetan ere dantzaldiak (txitxarri-loak) izango dira Ezkurdi plazan. Iraileko domeka guztietan egingo dira, arratsaldeko 18:30etik 20:30era. Domeka honetan Duo Twister orkestra etorriko da Ezkurdi plazara, hilaren 12an Moby Dick orkestrak girotuko du arratsaldea, 19an Marfil 2 taldea ariko da eta 26an Orquesta Rex taldea.

Ikastaroetan izen-ematea Berrizen

Berrizko Berrizburu kiroldegian garatuko dituzten ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago, irailaren 21era arte (10:00etatik 20:00etara). Pilates etamantenu gimnasia lako ikastaroak ez eze igeriketaren gai-nekoak ere eskaintzen dituzte.



2011ko egutegirako argazki lehiaketa abiatu du Abadiñoko Udalak

Lehiaketan parte hartzeko beharrezkoa da udalaren webgunean erregistratuta egotea. Aurten, gai moduan, 'Abadiñoko auzoak' ipini dute. Argazkiak aurkezteko azken eguna irailaren 30eko eguerdia da. Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, lau argazki aurkeztu ditzake eta webgunearen bitartez bidali behar dira. Argazkiak ikusgai ipiniko dituzte urriaren 18an, eta erregistratutako lagunek euren bozka emateko aukera izango dute. Bozka gehien jasotzen duten 12 argazkiak izango dira egutegian agertuko direnak.

ATXONDO

Hile honetan hasiko dituzte etxebizitza sozialetako lanak

Urte amaierarako lanak amaituta egongo dira, eta zozketa ere datozen lau hileetan egingo dute

Arrazolako udaletxe zaharrean lau etxebizitza atontzeko beharrak hile honetan hasiko dituzte. Uztailean udalakerabakizuenek, Construcciones Zabalandi enpresak egingo ditu lanak. Baldintza-orrien arabera, lau hileko epea daukate lanak amaitzeko. Etseen zozketak tarte horretan egingo dituzte.

Apartamentuetan hamabi pertsona ingururentzako lekua

Hiru gelako apartamentu bat, bi gelako beste bat eta gela bakarreko bi atonduko dituzte, iturgintza eta argiteriagaz

egongo da. Hiru gelako apartamentu bat, bi gelako beste bat eta gela bakarreko bi apartamentu izango dira. Etxebizitzaren barrualdea atontzeko egin behar dituzte lanak, eta, besteak beste, iturgintza-lanak eta argiteria ipintzeko beharrak egingo dituzte.

Azpian, aterpetxea

Udaletxe zaharreko behe solairuan aterpetxe bat ipintzeko asmoa dauka udalak, baina Anbotope elkartegaz daukan lege arazoa konpondu arte ez dira aterpetxe-lanak hasiko. Epaileak kalera-tze agindua eman eta gero, Anbotope errekurtsioa jarri zuen eta luzatu egin da auzia. ■ A.U.



Urte amaierarako zozketatuta egongo dira apartamentuak

BERRIZ

Udala arriskutsuak izan daitezkeen txakurren jabe direnentzat hauek erroldatzeko administrazio-lizentzia eskaintzen hasi da asteon; irailaren 1ean, hain zuzen ere. Horrelako animaliak edukitzeko beharrezkoa dalizentzia izatea.

Modu honetan, udalak tramiteak egitera deitu ditu honelako txakurrak dituzten herritarrak. Udaleko Erregistro Orokorrean bideratuko dira tramite hauek, eta irailaren 30a izango da hori egin ahal izateko azkeneko eguna.

Modako txakurrak

Azken urteetan gora egin du pisutsuak eta indartsuak diren animalia hauen kopurua. Mota honetako txakur baten haginakadak, daukan potentziagatik, kalte esanguratsuak sor ditzake pertsonengan; kasu batzuk ezagunak izan dira komunikabideetan izandako jarraipenagatik. Horregatik, administrazioek txakur hauen

Txakur arriskutsuak erroldatzeko epea zabaldu dute

Zortzi arraza sailkatu dituzte arriskutsu moduan; irailaren 30era arte egin daiteke lizentzia eskaria

Hainbat administrazioek txakur hauen jabetza erregulatze neurriak hartu ditu

Berrizen ere badihardute arriskutsuak izan daitezkeen txakurren errolda osatzen

jabetza erregulatze neurriak hartu dituzte azken boladan.

Txakurren zerrenda

Berrizen ere badihardute arriskutsuak izan daitezkeen txakurren errolda osatzen, eta zortzi arraza sailkatu dituzte: pitt bull terrierra, staffordshire bull terrierra, american staffordshire terrierra, rottweilerra, dogo argentinarra, fila brasileiroa, tosa inua eta akita inua. ■ M.O.

OTXANDIO

Uraren kudeaketa Udalaren esku mantentzea aztergai

Uraren ziklo osoaren kudeaketa Udalaren esku geratzea bideragarria litzatekeen aztertuko dute

Otxandiori eragiten dioten gaiei buruzko herritarren iritzia jasotzeko Herritarren Kontseilua deitu zuten uztailean. Lehenengoz deitu zuten kontseiluan, uraren kudeaketa eztabaidatu zuten.

Herriko araztegien gainean, udalak proposamen bi egin zituen: bata biodiskoak eta sistema ekologikoa uzartzaren ditue-na; iraunkortasuna du helburu eta ura udalak kudeatuko luke. Beste aukera Ur Partzuergoaren esku uztea da. Aldundiak azaldu die-nez, oro har, uraren zikloa eurek kudeatzea garestiegia litzateke,

eta Ur Partzuergoaren esku uztea proposatu die. Udalak gai horixe planteatu zuen eta herritarrak, azkenean, uraren kudeaketa udalaren esku geratzea bideragarria litzatekeen aztertzearen alde agertu ziren.

Orain, "bide hori bideragarria den aztertuko dugu, eta ondoren berrit deituko dugu Herri Kontseilua emaitzaren berri emateko", azaldu du Santi Uribe zinegotziak. Uraren ziklo osoak ura hartzen den tokitik araztegraino egiten duen bideko prozesu guztiari egiten dio erreferentzia. ■ J.D.

goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara
zabalik

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }

muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

gremioen koordinazioa

ur tiaga

Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigoi
erakusketa, salmenta eta ipintzea

Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

BERBAZ >

“Lanean ere, ingurukoak gutaz arduratu daitezzen eskubidea daukagu”

Langileen garapen pertsonalean eta profesionalean egindako lanagatik ziurtagiri berezia jaso du Maristak ikastetxeak



Julen Elgeta •

- Maristak ikastetxean zuzendari egon da azken zazpi urteotan
- Durangarra da

tu behar dugu. Adibidez, hiru ume txiki dituen amak zer behar izango dituen, lanean zelan dabilen, pozik dagoen... Hori hausnartu egin behar da.

“Lantzen dugun guztia ikasgeletan aplikatu behar dugu”

Joan den ikasturtea berri on bategaz agurtu zuten Durangoko Maristak ikastetxean. *Investors in People* izeneko ereduaren urrezko maila jaso dute pertsonen kudeaketa ereduagatik. Sariaren inguruan eta ikastetxean behar egiteko moduaren inguruan egin dugu berba orain arte bertako zuzendari izan den Julen Elgetagaz.

Zer lantzen da pertsonen kudeaketan?

Pertsonen inguruan dauden hainbat esparru landu ditugu: formakuntza, garapen pertsonala, garapen profesionala, aukera berdintasuna... Pertsonak garen heinean bakoitzak gure beharrek dauzkagu, eta behar horiei erantzuteko eredu bat, *Investors in People* izenekoa, jarraitzen gabilta.

Ereduaren maila gorena lortu duzue. Lan handia izan da?

Lau-bost urte daramatzagu horretan. *Investors in People*-n lau maila daude, eta arau batzuk jarraitu behar dira

maila horietara heltzeko. Araua ingelesa da, eta Londrestik hona etorri ziren ebaluazioa pasatzera. Ordubete inguruko elkarrizketan 196 galdera edo ebidentzia egin zizkiguten, eta 192 ondo erantzun genituen. Asko da! Galderak erantzuterakoan konturatu ginen gauza batzuk inkontzienteki egiten

egon dira mekanika saila, elektrizitate saila... eta sail bakoitzak bere burua eduki du. Orain ez daukagu horrelako organigramarik. Ardurak nahiko modu horizontalean banatu ditugu. Adibidez, mekanika saila Mugarra txokoa da, elektrizitate saila Saibigain txokoa... eta prozesuen arabera antolatzen

egin. Hasieran, batzuk gura-go zuten betiko moduan, lasai, kontrolatzen zuten alorrean lan egitea, baina sorpresa atseginak hartu ditugu zer edo zeren ardura hartu eta gero. Hasieran ez da erraza, baina urtero aldaketa txikiren bat egitera ohitu gara. Horregaz sormen giroa sortu dugu, eta beharrerako motibazioa handitu.

Langileak gustura beharegitea da kontua, beraz.

Nik uste dut pertsona guztiok daukagula eskubidea norbait gudan pentsatzen, gu babesten, egotekoa. Nork zaintzen nau ni? Nor arduratzen da nire garapen pertsonalaz eta profesionalaz? Ni bakarrik? Albokoaren postuan egongo bagina zelan egongo ginatkeen hausnar-

“Maristetako behargin guztiok eskolak emateaz gainera zer edo zeren ardura daukagu”

ditugula. Adibidez, ikasturtea planifikatzeko bakoitzari zer ordutegi komeni zaion galdetzen dugu, ume txikiak dituztenei noiz datorkien hobeto eskolak emateko... Hori urteetan egin dugu horrela.

Horrez gainera, aldaketa ugari ere egin dituzue.

Bai. Adibidez, orain urte bitik, ez daukagu departamenturik. Maristetan beti

gara; 24 prozesu daude, eta prozesu bakoitzak 3-4 pertsonako taldea eta taldearen arduraduna dauzka. Maristetan behar egiten dugun pertsona guztiok eskolak emateaz aparte zer edo zeren ardura daukagu.

Aldaketa handia izango zen hori. Bai, eta apurka-apurka egin beharreko gauzak dira horiek. Urtebete egon ginen planifikatzen aldeketak zelan

“Lanerako motibazioa eta sormena indartu ditugu aldaketekin”

Sormena erelendu duzue. Zelan? Aurtan, adibidez, lan egiteko lekua bi bider aldatu dugu. Hamabost egun beste leku baten eginda, beste pertsona batzuekin egon gara, beste-lako sentsazioak izan ditugu... eta horrek sormenari mesede egiten dio. Sormenaren teoriak dio gauza desberdinak pertsona desberdinekin sortzen direla.

Ikasturte berrian ez zara zuzendaria izango. Zelan hasiko duzu kurtsoa?

Maristetan jarraituko dut lanean, eta ETELen, heziketa profesionaleko zentroen elkartean hasiko naiz zuzendari. Maristetan bide beretik jarraituko dugu, beti gauza desberdinak probatzen. Horren beldurrik ez daukagu. Ingurugiroa eta prebentzioaren inguruko lan erronkak edukiko ditugu. Gaiok lantzen ditugu, baina serioa-go hartzeko asmoa daukagu. Lantzen dugun guztia ikasgeletara sartu beharko dugu; filosofia edo matematika klaseak ematean ingurumena eta prebentzioaren gaiak landu daitezke. ■ A.Ugalde



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak
jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik
larunbatera.
Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta
martitzen gauetan itxita.





Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik
zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

*Jatetxe
gida*



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik
ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak
enkarguz.
Espezialitatea: Txuleta errea.



Hotel Lagunetxea

Urkiolako Santutegiaren ondoan
Tel.: 94 465 60 10

Eguneko menua.
Enpresa-bilerak.
Denetariko ospakizunak.
Askariak.

**Hemen agertu
gura
badozu,**

DEITU

94 621 79 02

IZURTZAKO *jaiak 2010*



anboto



Izurtzako Udalak
JAI ZORIONTSUAK
opa deutsuez



Izurtzako JAI EGITARAUA

IRAILAK 3, BARIKUA

16:00 Frontenis txapelketa.
20:00 Txupinazoa eta parkearen inaugurazioa. Txalaparta.
21:00 Trikipoteo herrikoia.
23:00 Kontzertuak Gazte Lekuan:
SOK-ASALTO
B.E.K.
ZEBEL

IRAILAK 4, ZAPATUA

11:00 Pilota partiduak.
12:00 Marmitako Txapelketaren hasiera; marmitakoa aurkezteko azken ordua 14:30ean.
13:30 Enkartelada.
17:30 Bingo popularra.

IRAILAK 5, DOMEKA

10:00 Kalejira JAIZALE taldeagaz.
11:00 Meza Santa Agedako baselizan.
12:30 Mendigain dantza taldea.
12:30 Bertsolariak:
ENEKO ABASOLO
"ABARKAS" eta IRATXE
IBARRA
14:30 Herri-bazkaria.
16:00 Pernil urkatua.
17:00 Eriz Magoa.
19:00 Herri-olinpiadak eta txerri-harrapaketa.
20:00 LOTXO eta bere taldea.

IRAILAK 8, EGUAZTENA

11:00 Meza Erdoitzako baselizan.
12:00 Mendigain dantza taldearen ekitaldia.

12:30 Pilota partiduak: finalak.
15:30 Umeentzako parkea eta tailerrak.
18:30 Ipuin kontalaria: PANPIN PANPOX

IRAILAK 10, BARIKUA

18:00 Frontenis Txapelketa.
Finalerdiak eta finala.
23:00 DJ-ak Gazte Lekuan:
DJ GATO
DJ MATINALEN
DJ UNAI ZENI
DJ IURGI

IRAILAK 11, ZAPATUA

16:00 XIX. Mendi Bike Ibilaldia.
19:00 Tortilla txapelketaren hasiera.
21:00etan aurkeztu beharko dira tortillak.
21:00 Cous-cous dastaketa
21:30 Diskotxou

IRAILAK 12, DOMEKA

10:00 Kalejira JAIZALE taldeagaz.
11:00 Meza Santo Tomasen.
12:00 Mendigain dantza taldea.
12:30 Bertsolariak:
MIREN AMURIZA ETA
GORKA LAZKANO
12:30 GORRITI eta bere abereak.
14:30 Jubilatuen bazkaria herriko plazan. Jarraian Durangoko HERRI MAITE akordeoi taldearen emanaldia.
17:00 Mus txapelketa.



MEGAVIDEO

BIDEO PRODUKZIOAK

GRABATZEKO EKIPAMENDU OROKORRA:
KAMERAK, UNITATE MUGIKORRA,
POST-PRODUKZIO ETA GRAFISMO GELAK.

PLATOA
KULTUR- ETA HERRI-EKINTZAK
ENPREBAKO BIDEO PRODUKZIOAK

<http://www.megavideo.es> • e-mail: megavideo@megavideo.es
Elizalde, 25 - 1. Pab. • Tel. 94 620 20 55 • 48213 IZURTZA (Bizkaia)

Juan Ramon Azkonizaga

Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52

Banatzaillea:



JATETXEA AZKONIZAGA

Euskal Sukaldaritza

Eguneko menua

Ortuzar, 1 IZURZA Tel: 946 812 025



Txupinazoa eta inaugurazioa

Deneriko gustuak asetzeko moduko ekitaldiak prestatu dituzte irailaren 3tik 12ra Izurtzan

Jai giroa izango da nagusi datozen egunetan Izurtzan. Txupinazoa irailaren 3an jaurtita jarriko dituzte jaiak martxan. Udaletxeko balkoian iaz aguazilak hartu zuen ardura hori. Herritarrei ere parte hartzeko aukera eskaini zieten. Aurten, ekitaldi honen ondoren, parke berria inauguratuko dute.

Eneko Abasolo "Abarkas" eta Iratxe Ibarra, irailaren 5ean, eta Miren Amuriza eta Gorka Lazkano, irailaren 12an, bertsotan

Ainhua Garate otxandiarrek irabazi du aurten Izurtzako jaietako kartel lehiaketa. Sari moduan 250 euro eskuratu ditu

Jendea lasai egoteko gunea atsegina sortu dutela inguru horretan azaldu dute udal arduradunek. Safet Bijelic eskulturgilearen lanak bertan jarri dituzte. Ondoren, luntxa eskainiko dute, eta txalapartarekin triki-poteoa abiatuko dute.

Jaietan ere sukaldari ugari Izurtzan

Marmitako zein tortilla txapelketak eta cous-cous dastaketa egingo dituzte, besteak beste, jaietan

Euren lapiko eta zartagin arteko abildadeak erakusteko aukera izango dute irailaren 4an eta 11n izurtzarrek. Marmitakoa da jaietako lehenengo zapatuko lehiaketan parte hartu gura dutenek 12:00etan hasita prestatu beharko duten platera. Ordu bi eta erdi izango dituzte sukaldariak prestatetarako, eta 14:30ean aurkeztu eta dastatuko dituzte jakiak. Irailaren 11n, iluntzean, bestalde, tortilla txapelketa egingo dute afaltzeko.

Hurrengo egunean ere izango du jatekoak leku berezirik Izurtzako jaietan: herri-bazkaria egingo dute irailaren 5ean, 14:30ean. Izurtzarrak mahaiaren bueltan

Jaietako egitarauan musika, kirolak, meza, txapelketak, herri-bazkaria, dantzariak, kalejirak, bingoa eta beste hainbat ekitaldi antolatuko dituzte. Nobedadeen artean, Izurtzako gazte atzeritarren harrera zentroko gazteek cous-cous dastaketa prestatuko dute, irailaren 11n, bertaraten direnentzat. Pernila eskegi eta zein neurritara dagoen igartzeko lehiaketa ere prestatuko dute, irailaren 5ean, bazkalosterako. Bertsolariek ere euren tarteak izango dute Izurtzako jaietan. Eneko Abasolo "Abarkas" eta Iratxe Ibarra irailaren 5ean 13:00etan igoko dira taula gainera. Miren Amuriza eta Gorka Lazkano irailaren 12an 12:30ean arituko dira.

Jaietako kartela

Otxandiar batek irabazi du aurten jaietako kartel lehiaketa. Ainhua Garatek aurkeztutako proposamena izan da kultura batzordean batzen diren zinegotzi gehienek botoa jaso duena. Lehiaketako oinarrietan agertzen denaren arabera, 250 euro eskuratu ditu. Jaiaren elkargune nagusia eta dantzari biren irudia agertzen dituen marrazkia da kartel irabazlearen osagai nagusia. Bost lagunek aurkeztu dituzte euren proposamenak lehiaketara. Jaso dituzten lan guztiak bildu eta erakusketa ikusgai ipini dute Udaletxean.

Cous-cousa prestatuko dute harrera-etxean dauden berbereek, gainerako herrikideek dastatu dezaten



Productos químicos para la construcción

Eraikuntzarako gai kimikoak

www.fosroc.com

902 22 22 44

Gasteiz Bidea, 11 - Izurtza



www.bodegaslauna.com

info@bodegaslauna.com

Tel.: 94 682 41 08



BEREZITASUNA:
URDAIAZPIKOA • SOLOMO IBERIKOA
SALAMANCAKO TXORIZOA



TELEFONOA: 94 620 20 24 - IZURTZA

Gura beste musika estilo

Rocka, erromeria eta DJ ekitaldiak bateratuko dituzte; Herri Maitek akordeoia plazaratuko du

Durangeldeko musikariek hartuko dute protagonismoa Izurtzako jaietan. Estilo ugari uztartu dituzte egitarauan, herritar guztien gustuak asetu dituzten esperantzan.

Irailaren 3an Gazte Lekuak hartuko ditu lehen kontzertuak. Bertan, Durangoko hiru talde gazte igoko dira eskenatokira: Sok-asalto, B.E.K. (Beti Etiket Kanpo) eta

Zebel. Azken talde honetan MPB eta Tributo a Barricada lako taldeetan ibilitako musikariak daude; talde ia sortu berri hau abesti berriekin etorriko da. Gazte Lekuan hurrengo barikuan ere izango da eskaintzarik, hainbat DJgaz: Gato, Matinalen, Unai Zeni eta Iurgi.

Doinu lasaiagoak

Domeka honetan, hilaren 5ean, Lotxo talde beteranoak alaituko du giroa, iluntzeko 20:00etatik aurrera. Irailaren 11n, berriz, Diskotxouagaz dantzarako aukera izango da.

Musika eskaintza ixteko, Durangoko Herri Maite akordeoi taldekoak hurreratu-ko dira Izurtzara. Ibilbide luzeko taldea da Herri Maite, esperientzia handikoa. Hilaren 12an joko dute, jubilatuen bazkariaren ondoren.

Domeka honetan Lotxo talde beteranoak alaituko du giroa, iluntzeko 20:00etatik aurrera



Gaztetxoen arteko pilota partidu interesgarriak

Zapatu goizean eta eguazten eguerdian gaztetxoen pilota txapelketako finalak ikusteko aukera egongo da

Plaza ondoko pilotalekuak aurten ere eskualdeko zein Bizkaiko pilotari gazteen arteko lehia hartuko du. Eguazten honetan kanporaketak jokatu dituzte, eta finalak bihar eta datorren eguaztenean ikusi ahaliko dira.

Txapelketa benjamin, kimu, haur, kadete eta gazteen mailan ari dira jokatzeko. Guztira, Durango, Zaldibar, Elorrio eta beste herri batzuetako 36 pilotari gazte dabilta lehia: zortzina benjamin, kimu eta haur kategorian;

seina kadete eta gazteetan. Bihar kadete mailara arteko finalak jokatu dituzte, 10:30ean hasita. Gazteen mailako finala eguazteneko mezaren ondoren hasiko dute. Pilotalekua beste final baten testigu ere izango da. Irailaren 10ean, 18:00etatik aurrera, frontenis txapelketako finalerdiak eta finalak jokatu dituzte bertan.

Bestalde, azken hemeretzi urteetako ohiturari eustiz, irailaren 11n mountain bike ibilaldia egingo dute; ibilbideak Izurtzako 'nevera'-tik aurrera eramango ditu parte-hartzaileak.



**RECUPERACIONES
Y
TROCEADOS,SAL**

Elizalde auzoa, 47
Tel. / Faxe: 94 681 89 79
48213 IZURTZA
info@recytro.net
www.recytro.net



**Galdaketa eta
Siderurgirako Produktuak**

Fosco Española, S.A.
Elizalde auzoa, 5 - 48213 Izurtza (Bizkaia)
Tel. 94 620 25 00 / Faxe. 94 620 37 73
115 Posta Kutxa - 48200 Durango (Bizkaia)

VESUVIUS

KULTURA[>]

MUSIKA > ELKARRIZKETA

Gustuko doinu guztiak jorratzen dituzte Ghetto-n, mugarik barik

Mendiola, Atxondo, Bergara eta Elorrioko musikariak dira entseguak egiteko argazkietako Axpeko ganbaran elkartzen diren Ghattotarrak. Raimundo Amador-en aurretik joko dute Elorrioko Ferixa Nausiko jaien hasieran, gaur. Gitarra, baxua, bateria, saxofoia eta ahotsaz, gustuko bertsio bi eta euren zazpi kanta joko dituzte. Interneten, 'www.myspace.com/ghettotarrak' dute gunea.

Gehienok aurretik beste talde batzuetan ibilitakoa zarete. Zer taldetan?

Txakurren Putze, Midnight Murders, Arto-bixarra, Tuesday Evenings, Skie, Tunnel 483, Mokaua eta Delirium Tren Ez taldeetan jo izan dugu... Asmoa orain, batez ere, Ghetto taldean zentratzea da.

Kontzertu gehiago egiteko aukerarik izan duzue Elorrioko honen aurretik?

2007an hasi ginenetik urtero egin dugu kontzerturen bat; gero taldekideok batzeko zailtasun asko eduki izan dugu, izan ere, taldekide batzuk kanpoan ibiltzen gara urtean hile batzuetan. Horregatik, kontzertu gutxi eskaini izan ditugulako eta formazioan ere aldaketak egon direlako, kontzertu bakoi-tza oso desberdina eta berezia izan da.

Sarrionandiaren 'Galtzetan gordetzeko koplak' eta 'Inork agintzen ez didalako' olerkiak musikatu dituzte

Elorrioko hau da formazio honegaze eskaintzen duzuen lehenengo kontzertua?

Bai, maiatzean Abadiñon jo genuen: Koldo lehengo baxu-jotzailearen azken kontzertua izan zen. Gaur gauekoa da Karlos baxu-jotzaile berriagaz egingo dugun lehenengo. Kanta batzuk ere moldatu egin ditugu, beste batzuke euskaratu, eta Sarrionandiaren letra bi erabili ditugu kanta bi egiteko.

Sarrionandiaren zer olerki hartu dituzue kanta berrien letretarako?

Orain arte kanta asko ingelesez idatzi izan ditugu, baina konturatu gara hemen jotzerakoan jende askorengana ez garela ailegatzten: publikoak ez zaituela ulertzen konturatzen zara. Sarrionandiaren letrak oso gogoko ditugu, eta Ruperrek kantatzen duen Galtzetan gordetzeko koplak eta Inork agintzen ez didalako aukeratu ditugu.

Elkartzeko zailtasun handiekin, baina beti taldea mantentzearen alde egin duzue. Zer dauka Ghattok berezi egiten duena?

Besteak beste, saxofoia daukala: saxofonista oso ona. Horrek izaera berezia ematen dio taldeari; beharbada gurean ez dena oso ohikoa. Gure asmoa kantak ateratzen diren moduan hartzea da, ez gara estilo zehatz batera mugatzen. Estiloa markatu bakoa izateak askatasuna ematen digu sortzerakoan.



Gaitza da taldean saxofoiari lekua egitea?

Besteok isilik egoten jakitea da askotan kontua, eta egia esan, ez zaigu batere gaitz egiten; izan ere, denok disfrutatzen dugu saxofoiaren soloak entzuten. Kanten iraupena ere ez daukagu zehaztuta, eta denerako dago kanta batean denbora. Kanten intentsitateagaz jotzen dugu asko, eta doinu dantzagarriak ere sortzen ditugu.

Kanta berriak sortzen jarraitzen duzue?

Bai. Kontzertu honetan, esaterako, ez dugu kanta zahar asko joko, denboraz mugatuta gaudelako eta berriak jo gura ditugulako. Kanta asko dauzkagu sortuta. Sasoi batean denbora gehiago eskaintzen geniolako musikari, errazago ateratzen ziren kantak beharbada; orain, momentu konkretua aprobe-txatzen ikasi izan dugu.

Myspacen entzungai dituzuenak taldearen hasieran sortutakoak dira?

Hiru dira lehenengo urteetakoak, eta beste, *Chañaral del aceiteño*, Txileko izen horretako herrian konposatutakoa da: 50 biztanleko herri hartan arratsalde-pasa zegoela tipo batek gitarra utzi eta han sortu zuen musika, eta letra Unaik. *Myspacen* daudenetik hiru joko ditugu gaur.

Askotariko doinuak sortzen dituzue.

Oso argi daukagu ez dugula kanta mota batera mugatu gura; "guk gustuko dugun bitartean aurrera" da ideia. Ghetto izena ipini

genionean taldeari, hori adieraztea geneukan helburu: ghetto batean denok gaude baimenduta, eta hainbat kulturatako jendea batzen da bertan. Gure taldean ere, gustuko ditugun estilo mota guztiak gura ditugu jorratu, mugarik ipini barik.

Diskorik grabatzeko asmorik?

Asmoa bai... Saxofonista hile bi barru berriro doa atzerrira, eta orain, udazkenean, denok hemen gaudela, sei-zazpi kanta grabatzea gustutako litzaiguke. Kontzertu honen ondoren hasiko gara diskoaren grabaketan gehiago pentsatzen.

Kontzerturako urduri?

Apur bat bai, izan ere, orain arteko kontzertuak geuk proposatutakoak izan dira: taldekide bat badoalako despedidak izan dira gehienak... Oraingoan, jaietan jotzeko deitu gaituzte eta beste kontu bat da: entzulego zabala egon liteke, Raimundo Amadorrek jotzen duelako gero. ■ I.E.

"Myspacen ditugun kantetako hiru joko ditugu gaurko Elorrioko kontzertuan"



MUSIKA > EMANALDIA

‘Musikagaztetxeroa’ diskora berrirako grabazioak egin dituzte Atxondon

Martitzenean eta egunean, Atxondoko Gaztetxean burutu dituzte 17 taldek diskoa osatuko duten kanten grabazioak

Abesti bana grabatu dute martitzen eta eguen honetan Atxondoko Gaztetxean, *Musikagaztetxeroa* izeneko ekimenean parte hartu duten Durangaldeko eta Arratiako 17 musika taldek.

Eskualde biotako musika taldeen eta gazte asanbladen koordinadoraren arteko truke moduan aurkeztu dute ekimena: disko batean parte hartzeko aukera eskaintzen die Gaztetxeen koordinadorak musika taldeei, eta “trukean” koordinadorak azarorako Durangon antolatuko duen kontzertu-maratoian parte hartuko dute taldeek. Hain zuzen ere, taldekideak Durangaldekoak edo Arratiakoak izatea, grabatutako kanta euskaraz izatea eta taldeak

azaroran egingo duten maratoian parte hartzea dira antolatzaileek ipini dituzten baldintzak. Estilo eta era guztietako musikak izan dira ekimenean ondo etorriak. ■ I.E.

Durangaldea eta Arratiako musika taldeen diskorako

Azaroran Durangon joko dute ekimenean parte hartu duten taldeek



Ekimenean parte hartu duten Durangaldeko eta Arratiako taldeak

- | | | |
|-----------------------|------------------|---------------|
| • MIDNIGHT CREW | HOWLING DIABRUS | • HARRIKADA |
| • THE STRIKES | • SHOCK – ASALTO | • PIXONTXIS |
| • BIDEAN GALDUTA | • BEK | • KRUDERS |
| • TRASTORNO | • LARREGI | • KILAUUEA |
| • DALTONDARRAK | • JAIK | • ARMY ARMA |
| • LITTLE JOHN AND THE | • OLD GLORIES | • DESPERDIZIO |

MUSIKA > EMANALDIAK

Barakaldoko orfeoia ‘El huésped del sevillano’ lanagaz Elorrion

Irailaren 10ean da barakaldoko abeslarien zarzuela emanaldia Elorrioko Arriola antzokian

Barakaldon 1905ean sortutako orfeoia lan da irailaren 10ean, 21:00etan, Elorrioko Arriola antzokian eszenaratuko duten zarzuela. Kantua eta antzerkia uztartuz, Mónica Begoña González Arzuagaren zuzendaritzapean prestatutako ikuskizuna dakarte datorren barikuan Arriolako eszenatokira.

Elorrioko Arriola kultur aretoaren laguntzagaz, Durangoko Amankomunazgoaren dinamizazio sailak irteera antolatu du *El huésped del Sevillano* zarzuela ikustera joateko eskaintzagaz, Abadiño, Atxondo, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Otxandio eta Zaldibarko nagusientzat. Bost eurotan ipini dituzte sarrerak.

Erregearen enkargu bat jaso duen gorteko margolaria protagonista

Enrique Reoyo eta Juan I. Luca de Tenaren testuan oinarrituta eta Jacinto Guerreroren musikagaz, 1926an Madrilén estreinatutako lana da *El huésped del sevillano* zarzuela, eta XVII. mende hasieran Toledon kokatutako istorioa da lanean kontatzen dena. Erregearen enkargu bat jaso duen Juan Luis gorteko margolaria da antzezlaneko protagonista. ■ I.E.

Barakaldon 1905ean sortutako orfeoia azken lana entzungai

1926an Madrilgo Apolo antzokian estreinatu zuten lana



Organu, kantu eta bibolin doinuak San Fausto elizan gaur

Arandoño kultur elkarteak antolatu du Durangoko San Fausto elizako hiru musikarien gaur iluntzeko emanaldia

Durangoko Arandoño kultur elkarteak gonbidatuta datoz irailaren 3an Gerardo Rifon, Ainhoa Zubillaga eta Francisco Herrero musikariak San Fausto elizan kontzertua eskaintzera. Gaur, iluntzeko 20:15ean, da organuaren, kantuen eta bibolinaren hiru maisuen Durangoko emanaldia.

Haendel, Schubert, Bach eta Mahler-en kantak interpretatuz

Hiru euskal musikari entzungai, San Fausto elizan, gaur iluntzean

Antolatzaileek aurreratu dutenez, besteak beste, Haendel, Bach, Schubert eta Mahler-en obrak eskainiko dituzte bariku honetako Durangoko hitzorduan hiru musikari euskaldunek.

San Fausto elizako organua, lehenago Durangoko Santa Susana komentuan zegoena da: api-

rilean komentua itxi zutenean eraman zuten San Faustoko parrokiara. Lehenengo aldia izango da gaur iluntzekoa, organu hau San Fausto elizan kontzertu baterako erabiltzen dutena.

Orain hamahiru urte sortutako Arandoño elkarteak urte honetarako antolatu dituen ekitaldietako bat da gaurkoa. Maiztzean, "solasaldi-kontzertua" antolatu zuen Arandoño kultur elkarteak, lehenengoz: Montserrat Torrent organu-jotzaile kataluniarra izan zen orduko hartan gonbidatua. Urte amaierarako, abendurako antolatu du Arandoño elkarteak hurrengo organu kontzertua. ■ I.E.

Santa Susana komentuan zegoen organua joko dute

Gaurkoaren ondoren, abenduan da hurrengo organu kontzertua

Eskolara Bueltan



anboto



astarlea 15 • Durango
Tel: 94 623 26 32

BÓBOLI

Dotore bueltatzeko

Mutilentzat, ehun bikoitzeko praxeek modan jarraitzen dute: barrutik algodoiz-koak dira eta kanpotik gabardinek lako ehuna daukate. Neskei dagokienez, legging-ekin konbinatutako soinekoak aukera aproposa dira. Ile sintetikodun txalekoak ere osagarri deigarriak izan daitezke aurten.



Motxila
koloretsuak eta
alaiak daude
modan, lepoan
jartzekoak zein
gurpildunak



Haurrentzako
zapatak
aukeratzean
kalitatea
begiratzea da
garrantzitsuena



Nesketan ile
sintetikodun
txalekoek
konbinaziorako
aukera handia
ematen dute

Koloreei
dagokienez,
pistatxo berdea
gorriagaz
konbinatzea
modan dago

Nesketan
soinekoak
legging-ekin
konbinatuta
emaitza dotorea
lortzen da

KITTY
Hello Kitty
Patito Feo
Hannah Montana

CHIC
Bakugan
Ben 10
Bob Esponja...

**Eskolara bueltarako
PREST!**

Montebideo 4 • DURANGO • Tel.: 94 621 75 24

garcia ariño kirolak

Tel./Fax: 94 681 77 55
San Ignacio Auzunea, 4-A
48200 DURANGO (Bizkaia)

carhartt



caribu

Udazkenerako ere, zapata polit eta erosoak ditugu etxeko txikienentzat aukeran. Denetik eta denontzat dugu aukeran; kolore gris, urdin eta marroiko antezko zapata klasikoak, neskentzako bota dotore eta modernoak, zein korrika eroso egin dezaten kirol zapata modernoak etxeko bihurrienentzat.



caribu



caribu

KOTY



Kotoiz eta gabardinen estiloko ehunez egindako prakak modan mutilentzat

Ohiko praka bakeroak edo kirol arropak ez dira sekula modatik pasatzen

Horiaren eta itsasoko urdinaren nahasketak sekula ez du hutsik egiten

Mutiletan marroi txokolatea laranjagaz edo marroi beisagaz bateratu daiteke

Kolore gris, urdin eta marroiko antezko zapata klasikoak erabilgarri



KOTY



KOTY



caribu



ITZULI ESKOLARA PEDALEI EMANEZ!



**5 €-ko eskola materialagatik
lortu zozketarako aukera bat.**



Zozketa urriaren 15ean izango da.

Bidebarrieta, 1 - IURRETA - 94 681 10 70

Material praktikoa

Motxila aukeratzeko orduan, bi irizpide hartuko ditugu kontutan: diseinua eta erosotasuna. Kolore biziak eta marrazki bizidunetako pertsonaiak nahasten dituzten ereduak daude modan; gurpildun motxilak geroago eta indar handiagoz datoz.

Oinetakoak gordetzeko poltsa bereziak merkaturatuko dituzte hainbat etxek

Ez da komeni motxila oso handia izatea; konpartimentu batzuekin pisua banatuko da



Eskulanetarako materialaren artean ez dira faltako guraize koloretsu eta eraginkorrak



Koadernoak ere telebista saioen protagonistekin apainduta topatuko ditugu aurten



Marrazketarako behar diren margo guztiak biltzen dituzten maletinak praktikoak dira



Boligrafo ergonomikoek idazketa hobetzen lagunduko die ikasleei



Arriike Liburudenda

behar duzun eskola-materiala!

- Testu liburuak
- Hezkuntza eskolako liburuak

Kalebarria, z/g • 48200 Durango
Tel.: 94 620 18 93 • Fax: 94 681 64 03

URIEN liburudenda

opariak
jolasak
eskola eta bulego gaiak
bus bonoak
gozokiak

prentsa
aldizkariak
fotokopiak
fax zerbitzua
telefono txartelak

BIXENTE KAPANAGA, 10 TEL.: 94 466 93 60 FAXA: 94 466 93 61 48200 IURRETA

KAMIKOPIAK
KOPISTEGIA

Fotokopiak • Enkuadernazioak • Plotterak
Planoak • Papergintza • Inprimaketa digitala

Berriotxo kalea 9
Tel.-Faxe 94 623 14 31
48230 ELORRIO
kamikopiak@kamikopiak.com

URTINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

Eskolaz kanpo ikasten

Musika, dantza, pilota, ingelesa... ikasturteagaz batera eskolaz kanpoko jarduerak ere martxan jarriko dira laster. Seme-alaben arratsaldeak jarduerekin lar bete barik, eskolaz kanpoko ekintzetan umeei asko ikasten dute; gaitasunak garatzeaz gainera, umeei beste modu bateko hartu-emanak izaten laguntzen diete.

Beste harreman
mota batzuk dira
eskolaz
kanpokoak;
garapen
sozialerako
onuragarriak



Kirol jardueretan adiskidetasuna, bizitasuna, oreka, indarra... lantzen dira, eta komeni da jolas moduan planteatzea, lehiakortasuna lar bultzatu barik



Jarduera musikaletan entzumen musikala eta espresio artistikoa garatzen dira. Horrez gainera, musikan trebatzeak emozioak kanporatzen ere laguntzen du



Txikitatik hizkuntzak ikasita handitu egiten da hizkuntza bat baino gehiago ikasteko ahalmena. Umeei segurtasuna eta poztasuna sentitzen dute hainbat hizkuntza erabiltzeko gai direnean



GURASOENTZAKO GOMENDIOAK



- Jolasteko, familiagaz egoteko eta atsedena hartzeko astia behar dute
- Motibatu, baina ez derrigortu, eta ez bideratu jarduerak gurasoen gustuetara.
- Ekintza bakarrean zentratzea ez da ona. Hobeto kirol jarduerak aisialdiagaz edo hezkuntza arloagaz uztartzea
- Konprometitu. Ez izena eman umea ordutegi kontuengatik edo beste gauzaren batengatik joan ezin den ekintzetara



Musika Moderno Gunea eta Umeentzako Musika

Alluitz, 3 behea • Durango • Tel.: 94 603 27 50 • www.rockizarra.com • info@rockizarra.com

Gitarra • Pianoa • Bateria • Baxua • Rock eta Jazz konboak • Lengoaia
Musikala • Harmonia • Grabaketa eta Informatika Musikala

matrikula zabalik

ORAIN:

Saxo • Bibolina • Trikitixa • Akordeoia
Panderoa • Zeharkako txirula
AUDIO TEKNIKARI DIPLOMA
PROFESIONALA

Irakasle onenak eta instalazio moderno eta erosoak Durango erdialdean

JOLASTU DO-RE-Mian!

ROCK IZAR ESKOLAK YAMAHA METODOA ESKLUSIBAN AURKEZTEN DU DURANGON

4-12 URTE BITARTEKO UMEENTZAT

LAU URTETIK AURRERAKO UMEEK EUREN SORMEN ETA AHALMEN
MUSIKALA LANTZEN DUTE TALDE MURRIZTUETAN, NATURALITASUNEZ
ETA ERA DIBERTIGARRIAN.

info@rockizarra.com





Haurreskoletan
lehenengo urtean
10 eguneko
egokitzapena
egiten dute


Egokitzapena

Eskualdeko haurtzaindegietan ikasturte hasieran egokitzapena jartzen dute martxan. Haurtzaindegiko lehenengo egunetan ingurura ohitzeko guraso edo zaintzaileak umeekin joaten dira. Haurreskoletan araututa dago lehenengo urtean 10 egun egokitzapenerako eskaintzea. Hala ere, hurrengo urtean ere gurasoek zailtasunak izan arren, gomendagarria dela azaldu digu Aitziber Zubikarai lurretako Haurreskolako arduradunak.

Bigarren urtean ere
gomendagarria da
umeei egokitzapena
egitea

Haurtzaindegietan
irailean zehar umeei
egokitzapena
izango dute

Haurtzaindegietako
arduradunek
garrantzi handia
ematen diote



produktuak salgai!



Hiper ABADIÑO zurekin

Durango
Uribarri 13 • Tel.: 94 623 26 21

Konfiantzaren balioa

piso 

zure neurrira egindako konfiantzazko irtenbideak

MATIENA Erref. 002-1136
•156.263€ (26 milioi)



2 logela. Ganbara. Berogailua. Eguzkitsua! GAZTEENTZAKO AUKERA ONA!

KIRIKIÑO Erref. 002-895
•160.000€ (26,6 milioi)



3 logela. Orientazio ona. SUBENTZIO-NATUTAKO HIPOTEKA. 337/hileko (lehen 3 urteetan). KONTSULTATU.

DURANGO Erref. 002-1107
•173.692€ (28,8 milioi)



3 logela. Egongela handia. Sukaldea eta komuna. Trastelekua. Erreformatua.

DURANGO Erref. 002-1132
•179.702€ (29,9 milioi)



3 logelako pisu eguzkitsua. Egongela balkoiarekin. Trastelekua. ZURE ETXEBIZITZA IZAN DAITEKE!

DURANGO Erref. 002-1147
•183.308€ (30,5 milioi)



Erdialdean kokatua. 3 logela. Igogailua. Egongela. Sukaldea. komuna. EZIN EGOKI-AGOA LEHEN BIZILEKUA IZATEKO!

TABIRA Erref. 002-1164
•192.323€ (32,9 milioi)



Apartamentua estreinatzeke. Ikuspegi onak! Ganbara. EZIN EGOKI-AGOA LEHEN BIZILEKUA IZATEKO!

SAN IGNACIO Erref. 002-870
•192.323€ (32 milioi)



Etxabe eraiki berriak estreinatzeke! 2 logela, 2 komun. Eguzkitsua. Prezio/kalitatea ezin hobea.

DURANGO Erref. 002-1140
•216.000€ (35,9 milioi)



Erdialdean kokatuta. 2 logela. Eguzkitsua. Orientazio ona. Guztiz berriztatua eta ganbararekin. BERRIA DIRUDI!

DURANGO Erref. 002-1114
•219.369€ (36,5 milioi)



3 logela. egongela, sukaldea eta komuna. Berogailua eta kristal bikoitzeko PVCzko leihoak. Teilatua eta etxaurrea konpondua. Igogailua. Eguzkitsua. AUKERA ONA! EZIN EGOKI-AGOA LEHEN BIZILEKUA IZATEKO!

IURRETA Erref. 002-1145
•245.813€ (40,9 milioi)



Pisu altua igogailuarekin. Guztiz erreformatua. Logela bikoitzak. ZURE ETXEBIZITZA IZAN DAITEKE!

DURANGO Erref. 002-1113
•246.414€ (41 milioi)



3 logela bikoitz, egongela handia, sukaldea despentsarekin eta komuna. Berogailua, igogailua eta leihoak aldatuta.

ABADIÑO Erref. 002-1144
•270.455€ (45 milioi)



160m2ko terraza duen etxabea. 4 urte. 2 logela, garajea eta trastelekua. BERRIA DIRUDI! SALTZEKO PREMIA!

DURANGO Erref. 002-831
•270.455€ (45 milioi)



Landako gunea. 3 logela, 2 komun, garajea eta ganbara. EZ GALDU AUKERA HAU! NEGOZIAGARRIA!

F.J.ZUMARRAGA Erref. 002-1150
•276.465€ (46 milioi)




14 urte dituen duplexa. 2 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua aukeran.

TXIBITENA Erref. 002-877
•294.496€ (49 milioi)



Guztiz berriztatua. 3 logela bikoitzak. Sukalde handia eskeglotokiarekin. 2 komun. Ganbara. Kanpora ematen du. AUKERA ONA!

PLATERUEN PLAZA. Erref. 002-719
•294.495€ (49 milioi)



12 urte dituen pisua. 100 m2, 4 logela, 3 komun, 22 m2ko egongela, garajea eta trastelekua. NEGOZIAGARRIA!

DURANGO Erref. 002-722
•309.521€ (51,5 milioi)



5 urte dituen pisu zoragarria. 2 logela, 2 komun, garajea eta trastelekua. AUKERA EZIN HOBEA!

DURANGO Erref. 002-783
•318.536€ (53 milioi)



Pisu altua igogailuarekin. Eguzkitsua. Orientazio ona. 3 logela, 2 komun, egongela handia ikuspeglekin. Guztiz erreformatua. Garajea eta trastelekua. ETORRI IKUSTERA, GUSTATUKO ZAIZU!

DURANGO Erref. 002-1149
•348.587€ (58 milioi)



87 m2ko terraza daukan etxabea. 2 urte. Orientazio ona. 17 m2ko garaje itxia. Logela eta egongela handia. BERRIA DIRUDI!

DURANGO

2 LOGELA, IGOGAILUA, GARAJEA ETA GANBARA DITUZTEN ETXEBIZITZEN BILA GABILTZA.

EROSLEA DAUKAGU!



Konfiantzaren balioa

piso  .com

zure etxea saltzeko edo erosteko...

Zertifikatutako Bizkaiko lehen inbiliaria sarea



ZINEMA > DOKUMENTALAK

Islandia eta Buenos Airesko errealitateak irailean Iturri

'God bless Iceland' eta 'El último aplauso' dokumentalak emango dituzte iraileko eguen bitan Elorrioko Iturri kultur etxean: irailaren 16an eta 23an dira film emanaldiak

Zinemagintza konbentzionalan askotan aretoetatik kanpora geratzen diren errealitateak herritarreigerturatzeko asmoagaz martxan ipinitako 'Hilean Behin' egitasmoaren ikasurte hasierako hitzorduak dira *God Bless Iceland* eta *El último aplauso* pelikulak. Irailaren 16an eta 23an, Iturri kultur etxeko areto nagusian dira emanaldiak.

Galdera zehatz bat da *God bless Iceland* dokumentalaren abiapuntua: "Zer gertatzen da herrialde oso bat zenbaki gorrietan geratzen denean?". Erantzunak, filmeko irudi eta istorioetan islatuak aurkitu ditzake ikusleak.

Orain urte gutxi munduko herrialderik garatuenetarikoa zen Islandia, krisi ekonomikoaren eta kapitalismoaren hutsegitearen adibide zelan bilakatu den erakusten du dokumentalak. Egoeraren ondoriozko Reykjavik hiriburuko manifestazioak, bankuetako eta

Islandiako egoera
ekonomiko eta soziala
ardatz irailaren 16koan

gobernuko arduradunen dimisioak, hauteskunde orokorrak... guztiak islatu eta erakusten ditu antzerkia eta zinemagintza Suezian ikasi zituen Helgi Felixson zuzendariaren filmak.

Tango kantari talde bat
da 'El último aplauso'
filmeko protagonista

Bestetik, German Kral argentinarrak zuzendurikoa da iraileko bigarren dokumental emanaldirako aukeratutako filma: Buenos Airesko tango kantari talde bati buruzkoa da irailaren 23an emango duten *El último aplauso*.

Buenos Airesko tango tabernarik ezagunena zen El Chino tabernako jabearen heriotzaren osteko musikari talde baten ibilbidea segitzen du filmak. Berriro, azkenekoz bada ere, kontzertu bat eskaini ahal izatea helburu duen taldearen borroka erakusten du Kral zuzendariaren lanak. Musikarien jotzen jarraitzeko borroka hori, Argentinan garai horretan bizi den krisi ekonomiko oso latzak zailtzen du, gainera. ■ I.E.



ko Guzur tabernako emanaldian. Diskoa editatzeko baliabide ekonomikorik ez daukala-eta, zazpi kantok bere myspace gunean jais-teko moduan ipini dituela azaldu digu Zain eta Xarma taldeetan batera jotzen duen musikari gazteak. Bere sorkuntzez gainera, besteak beste, John Mayer musikariaren bertsioak ere eskainiko ditu zuzenean. Bere ahotsagaz eta gitarren laguntzagaz sortutako kantak joko ditu gaur iluntzean.

Frouferen ondoren, bere burua Ni Neu izenagaz aurkezten duen berriztarra ipiniko da mikro aurrean, beste musikari bik lagunduta. Berak sortutako kanta lasaiak eta rumba doinuak uztartuta sortzen dituenak zuzenean eskaintzeko gogotsu dago musikaria. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Jon Irazabal
Gerediagako kidea



URari, pase forala

2006ko abenduaren 30ean, zoritxarrez, Iurretako abadetxea erre egin zen. Hile batzuk barru lau urte beteko dira etxe horrek bere gainbehera hasi zuela. Epe horretan hainbat hitz entzun eta asmo kaleratu dira etxea dela-eta. Udalak erosteko asmoa azaldu zuen. Alderdi Popularrak *Dantzari dantzaren* inguruko museo edo interpretazio gune baten aldeko iritzia azaldu zuen. Udala eta elizbarrutia tratuan ibili ziren, baina ez ziren ezer adostera heldu. Eta horretan zebiltzala beste erakunde bat agertu zen, Eusko Jaurlaritzako URA zerbitzua.

Erakunde honek aldarrikatu zuen etxea ezin dela berriro konpondu. Zaldairekaren ondoan egonik, ez dutela euren oniritzia emango, etxe hau, nahiz eta orain dela ia 300 urte eraiki, uholde bat izanez gero gune arriskutsua izango dela. Gainera, elizate bereko Arandiako zubia eta Bixente Kapanagako etxe batzuk bota beharra dagoela. Denok harriturik gelditu ginen.

Batek baino gehiagok pentsatu genuen... Bilboko San Antoneko zubia botako dute? Ba... dirudienek, ez. Gainera, uri hartako erriberako merkaturia bota eta berriz eraikitzea posible izan dute. Badakizu... hura Bilbo da. Baina oraindik gaur harridura handiagoa jaso dut egunkarian irakurri dudanean Deustuko zubi azpian, Bilboko erreka ondoan, suhiltzaileen egoitza berrietako bat eraikiko dutela. Gure inguruko kultur ondareak ezin ditugu babestu, eta Bilbon posible da eraikuntza berriak eraikitzea... Pentsatzen dut gure inguruko erakunde batzuk zorriak perratzerantz bidaltzeko ordua heldu dela.

Sasijakintsu eta "ur" guztien gaintetik, gure herriak eta mendeetan zehar bildutako kultur ondareak benetan babes-teko ordua dugu ohiturazko "pase forala" erabiliz. Gerediagan eta Gernikako haritzaren gerizpean esaten zuten beazala "sea acatado pero no cumplido" aldarrikatuz.

MUSIKA > EMANALDIK

Kantautore berriztar bi gaur, Guzur tabernan, euren kanta aurkezten

Irailaren 3an, 19:30ean da Froufe eta Ni Neu kantariaren emanaldia. Euren sorkuntzak eta bertsioak joko dituzte

Orain urte biko Berrizko Gaztetxe-ko Aldapa maketa irabazi zuenetik prestatzen jardun duen diskoan kaleratuko dituen kanta joko ditu Joshua Froufe musikari berriztar gazteak kontzertua zabaltzeko. Lorentzo Records estudioan grabatutako *Esos momentos* diskorako zazpi kanta, eta horiek zuzenean eskainiko ditu gaur iluntze-

Lorentzo Records-en
grabatutako kanteekin
etorriko da Froufe



C. Martín

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

IRAILAK 10 22:00etan
BERTAN BERA + LAIN
KONTZERTUA. Sarrera: 5euro.

IRAILAK 11 22:00etan
KUDAI+HIRA+AIUMEEN BASOA
KONTZERTUA. Sarrera: 5euro.

IRAILAK 18 19:00etan
DANTZALDI IBILTARIA
AIKO TALDEA
ERROMERIA. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

irailaren 19an

DENBORALDI

berria!

San Agustín
KULTUR
GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburu

11-54 661 07 76 Artekale, 14 Durango

IRITZIA >

Gutunak @

Presoen egoera

Iraileko lehen aste honetan, berriro ere gure senide eta lagun preso politikoek pairatu behar dituzten muturreko egoerak salatu behar ditugu. Euren kontra aplikatzen den kudelkeria amaigabea da, eta euren bizi baldintzak penagarriak. Argi esan behar dugu, frantziar eta espainiar estatuak euskal preso politikoen bizitzekin jolasean ari direla.

Azken hilabete honetan, gure senideek bizi duten muturreko egoeraren erakusgarri diren egoerak bizi behar izan ditugu. Gose eta egarri greba amaigabeak, gure senideak bakarturik mantentzea, bizi baldintzen okertzea, senideon aurkako miaketen jarraitzea eta dispertsio politikak frantziar espetxe batera bidean eragindako kotxe istripua.

Politika kriminalean pauso berriak eman dituzte. Esaterako, biziarteko zigorra eta gaixo larrien erabilpen politiko eta krudela. Gaixotasun larri eta sendaezinak dituen Mikel Ibañez berriz ere espetxeratu dute, eta Gotzone Lopez de Luzuriaga preso gaixo larriari biziarteko zigorra ezarri dio Espainiako Entzutegi Nazionalak. Ibañezen kasuan, zehazki duela 16 urte, abuztuaren 24an, bera eta beste bi errefuxiatu politikok gose greba bat abiatu zuten ezarri zieten estradizio aginduari aurre egin asmoz. Egun horietan, hiru kideak Uruguai-ko Filtro ospitalean ingresatu zituzten. Bertako ehunka herritarren babesa jaso zuten egun gogor horietan. Gaur egun euskal errepresaliatu politikoekiko elkartasunak lehengoan dirau. Uruguain egunotan burututako ekimene-tan gure senide presoak presente izan dituzte. Gora zuek!

Iheslari politikoen aurkako jazarpenak bere horretan dirau. Azkeneko kasuak, Luis Zengotitabengoa Elorrioko gaztearena, Belgikan atxilotu zutena, edo Jon Telleriarena, bizi-

tza erabat normala eta publikoa zeramana. Atxilotetak eta entregak eguneroko ogi dira gure senideentzat.

Elkartasunaren kriminalizazioan ere egoera berriak bizi ditugu. Debekuak eta argazkien ehizak bere horretan dirau. Bilboko Aste Nagusian 30 urtez normaltasun osoz presoen eskubideen defentsan deitutako ekimena debekatu, oztopatu eta bortizki kolpatu dute. Egoera hauen guztien aurrean tinko jarraitzeko deia egiten dugu. Elkartasuna erasotzeak Euskal Herriko mugimendu sozial eta politiko oso bat erasotzea baitakar.

Gauzak horrela, kurtso berriari inoiz baino indartsuago ekingo diogula argi dugu. Gure senide eta lagun diren euskal errepresaliatu politikoen eskubideen defentsari gogor ekingo diogu. Burutu berri ditugun errepide naiz hondartzetako ekimenek indartu gaituzte, eta bidea hori dela argi dugu: konpromisoa, elkartasuna eta indar mobilizatzailea. Oinarrizko eskubideetan sinesten duen pertsona oro aktibatzea izango da gure erronka. Milaka eta milaka herritar mobilizatuko ditugu, eta inoiz baino salaketa eta elkartasun mugimendu zabalagoa sortuko dugula zalantzarik ez dugu. Euskal Herrian, eta baita ere nazioartean.

Besterik gabe, gure senideak dagozkien eskubideen jabe Euskal Herrian egon arte, geraezina den elkartasun eta salaketarekin jarraituko dugu.

Euskal preso eta iheslari politikoak Euskal Herrira, orain!

Durangaldeko errepresaliatuen senide eta lagunak

Sei hankako mahaia



Niko Moreno
Ezker abertzalea

Gela hotsak

Irailarekin batera, indarberrituta ekingo diogu kurtso politiko berriari, datozen hilabetei begira bete beharreko helburuak argi izanda.

Aspaldidanik, berriz gara kurtsoa pasatu nahian eta ezin, eta ez nahikoa ez dugulako egin, “eskola sistema” hori ekiditeko eratuta dagoelako baizik, eta beti daudelako horretaz aprobetxatzen direnak.

Ezker Abertzaleak jadanik esan du sistema honek ez duela gehiagorik ematen, batzuk berau mantentzeko ahalegin guztiaketa bost egin arren, eta horregatik elkartu nahian gabiltza ahalik eta gelakide gehienekin, bere burua irakasle dutenen estatusa aldatzeko asmotan. Sistemak agortuta dagoela ia denok onartuta dugu, eta bere helburu teoriko eta praktikoei bestelakoak izan behar dutela ere bai. Badiragelako “delegatua” izatearekin konformatzen direnak, baina, “ikasle txar” deitzen gaituen arren, guk hori ez dugu onartzen, ezta onartuko ere.

Ez dezagun gal aukera hau. Badakizue. Motxila hartu eta kurtso berrirako prest!, lan handia dugu-eta

Zuzendaritza, irakasleagoa, ikasgaiak... dena, dena aztertu eta “kurrikulu” berria ezarri behar dugu. Horretarako grina badugu, baita tresnak ere, eta bide-orria ere zehaztuta daukagu. Prest dauden gelakideak ere bai, baina oraindik beste batzuk konbenzitu eta sistema zaharra edo berriaren arteko hautua egin behar dela ederto adierazi behar dugu. Hori da kurtso honetarako zeregina, eta, beharbada, patio ordurik gabe geratu behar badugu, hori ere egiteko prest gaude, baina ez dugu nahi gure ondoan ez “pelota” ez “delegatu” izateko jaio denik. Gure eskuetan dago. Ez dezagun gal aukera hau. Badakizue, motxila hartu eta kurtso berrirako prest! Lan handia dugu-eta.

**Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.**

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia
helarazteko helbideak:**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten ize-
nean sinatuta eta ANBOTOn irizpideak jarraituz
zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO





anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2010eko irailaren 3a - 9. urtea - 384 zk.

Laguntzailea:	Eta honako Udal guztiak:		
 Bizkaiko Foru Aldundia	Abadiño	Elorrio	Mallabia
	Atxondo	Garai	Mañaria
	Berriz	Iurreta	Otxandio
	Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazioa:
Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilariak: Ana Domínguez, Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

durangaldeko
bherriak
ezagutzeko

anboto
komunikabideak



durangaldeko astekaria

Egin zaitez harpidedun



harpidedun egiteko, deitu
94 681 65 58 telefonora edo
harpidedun@anboto.org-ra
zure izen-abizen eta helbidea bidali

KIROLAK >



lazko aldia arrakastatsua izan zen bai parte hartzaileen maila handiagaitik, baina etorri zen zale kopuruagaitik.

Aurten ez dute nazioarteko eskalada masterra antolatuko

Krisiaren ondorioz aurrekontuetan doiketak egin ditu udalak, eta Masterraren aurretik "beste lehentasun batzuk" dituzte; antolatzaileek "ulertzen" dute udalaren erabakia

Krisiaren ondorioz "aurrekontuak doitu" beharra izan dutenez, Dur&Go nazioarteko eskalada masterra "ez da Durangon antolatuko", Ander Gorrotxategi Gazteria, Kirol eta Hezkuntza Batzordeko presidentea azaldu duenez.

Ondorioz, Dur&Go nazioarteko Masterrak —sasoi bateko DimaRock— ezin izango dio jarraipenik eman iaz hasitako aro berriari. lazko irailean Dimatik Durangora tokialdatu zuten txapelketa, eta bertaratutako eskalatazaileen maila handiagaitik eta txapelketa bertatik bertara jarraitu zuten zale kopuru altuagaitik, esperientzia arrakastatsua izan zen. Masterrak, ordea, "azpiegitura handia eskatzen du, eta aurten beste lehentasun batzuk

A. Gorrotxategi:
"Aurrekontuak doitu ditugu eta lehentasunak beste batzuk dira"

I. Erdoiza: "Egoera ikusita, aurtengoz Masterra bertan behera uztea erabaki dugu"

ditugu", dio Gorrotxategik. Datorren urtean masterra berreskuratzeko aukerari buruz galdetuta, "ikusita egin beharko da beste herri batean antolatzeko modurik baduten, eta horrela bada zer arrakasta daukan".

"Ulertzen dugu erabakia"
Iaz masterreko antolaketa lanean ibili zen Inaki Erdoizak adierazi duenez, "eskalada masterra aurten antolatzea guztiz baztertu dugu". Ez dute antolatuko, ez Durangon eta ez beste inon. Erakundeen babesak "beharrezkoa" ei da horrelako txapelketa bat antolatzeko: "Maila batera arte autofinantzatu genezake txapelketa, baina gastu guztiei aurre egitea ezinezkoa da", dio. Teorian txapelketa Durangon

antolatzeko konpromisoa urte birakoa zen, baina "krisiak gogor jo du alde guztietan, eta ulertzen dugu udalaren jarrera". Iaz udalaren aldetik jasotako "babesa" eta txapelketa antolatu zedin egindako "ahalegina" eskertzen dituzte, eta etorkizunean, egoera globala hobetzen denean, "gustatuko litzaziguke berriro elkarlan horri ekitea".

Erdoizak adierazi duenez, datorren urtera begira Bizkaiko beste herri batzuekin kontaktuan jarri dira, baina oraindik ez dago ezer zehaztuta: "Hain maila handikoa ez izanda ere, gustatuko litzaziguke txapelketaren bat antolatzea".

Iazko Durangoko Masterra Patxi Usobiagak eta Mina Marcovicek irabazi zuten. ■ J.D.

Sorginen Lasterketarako izen-ematea hasi da

Irailaren 12an Axpek Sorginen Lasterketako hirugarren aldia hartuko du. Parte hartu gura dutenentzat izena emateko epea irailaren 9ra artekoa da, www.calle-9.com webgunean.

Dortsala lasterketa egunaren aurretik jasotzeko irailaren 4an eman behar da izena, beranduen jota. Ondoren, Durangoko eta Elorrioko Errekamendi Kirolak dendetan jaso daiteke dortsala; bestela, lasterketaren egunean jaso beharko da. Oraingoz, 160 lagunek eman dute izena webgunean. ■ J.D.

Urriaren 3an Duatloi Herrikoia Durangon

Aurten bosgarren aldia egingo du Mugarra triatloi taldeak antolatzen duen Duatloi Herrikoia, eta dagoeneko prest dute ekimena iragartzen duen kartela. Lau maila antolatu dituzte, adin tarteen arabera.

Nagusiek 12:00etan ekingo diote lasterketari; lau kilometro arineketan, 13 bizikletan eta azkeneko biak berriro lasterka. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke, edo aurreko egun bietan Gure Kabiya tabernan. ■ J.D.

Berasaluze bigarren dago rankingean

Pablo Berasaluze berriztarra bigarren dago Asegarce enpresako ranking ofizialean. Uda ezin hobea osatu ondoren, Bengoetxea VI.a da liderra 4.737 puntugaz; Berasaluzek 3.623 puntu dauzka. Irailaren 30ean amaituko da aurtengo rankinga.


Lehenengo hamarren artean beste berriztar bat ere badago: Ibai Zabala. Haimar Olaizolaren atzetik dago, bederatzigarren, orain arte 2.397 puntu batu dituelarik. ■ J.D.

A CENTRAL
FORESTAL

Baserritarren eta
Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa
48200 IURRETA

Tf.: 946 205 187
Faxa: 946 205 194



Iaz Azerbaijanen jokaturako Munduko Txapelketan brontzea irabazi zuen. www.maiderrunda.com

Domina du helburu Undak Munduko Txapelketan

Astelehenean Moskun hasiko den Munduko Txapelketan iazko brontzea "berdintzea edo hobetzea" gura du borroka librean

Maider Unda oletarrak irailaren 6tik 12ra Moskun jokaturako den borroka libreko Munduko Txapelketan parte hartuko du. Txapelketa hasiko den egun berean, astelehenean, joango da Moskura, baina barikura arte ez da lehiatuko. Hain zuzen ere, egun horretan jokaturako dituzte kanporaketak eta finalak emakumeek.

Iaz Danimarkan jokaturako Munduko Txapelketan brontzeko domina lortu zuen Undak, Munduko Txapelketa batean lortu duen lehenengoa, eta orain ere "brontzea berdindu edo iazkoa hobetu" gura du. Jokatu duen azkeneko txapelketa ofizialean –abuztuan, Polonian–, aurreikusi baino makalago ibili zen, baina horrek ez dio aparteko kezkarik sortzen: "Batzetan irregular samarra naiz, eta Polo-

nian neurerik eman ez izanak ez du esan gura Moskun berdin gertatuko zaidanik".

Prestaketa lana "gogorra" izan da, baina "sasoian" dagoela uste du: "Ez da erraza ia mundu guztia oporretan dagoenean norbera entrenamendu betean aritzea; azken hiru asteak intentsioak izan dira, baina ondo prestatuta noala pentsatzen dut, eta txapelketari ekiteko gogotsu nago". Eguenean zozketa egingo dute, eta Undak orduan jakingo du finalera bidean norzuket izango dituen arerio.

Palmares ikusgarria

Munduko Txapelketan ez eze, aurtan Azerbaijanen egindako Europako Txapelketan ere brontzea irabazi du. 2008an Beijingeko Joko Olinpikoetan diploma olinpikoa lortu zuen. ■ J.D.

"Azken asteak gogorrak izan dira, baina sasoi onean noalakoan nago"

Astelehenean doa Moskura, eta barikuan hasi eta amaituko du Munduko Txapelketa

Hasiera onari jarraipena eman gura dio Kulturalak

Lehenengo jardunaldian 2-3 menderatu zuten Baskonia; bihar Leioa jasoko dute

Durangoko Kulturalak hasiera ona eman dio denboraldiari. Baskoniari egindako bisitatik hiru puntuak ekarri zituen, markagailuan birritan atzetik joan eta gero. Iker Martinez eta Muñozgurenen goleak berdindu zuten partidua, eta lehia amaitzeko sei minuturen faltan Xabi

Baskoniaren kontra birritan atzetik joan eta partiduari buelta ematea lortu zuten

Nietok sartu zuen garaipenaren gola Durangoko taldearentzat. Axier Intxaurrea entrenatzaileak taldeak erakutsitako "ambizioa" azpimarratu du: "Atzetik joan arren, erreakzionatzeko ahalmena erakutsi genuen".

Bihar, 18:00etatik aurrera, Leioak bisitatuko du Tabira. Aurtan hainbat taldek inbertsio garrantzitsua egin dute 2.B mailara igo guran, eta horien artean Leioa dago: "Badakigu asko indartu direna, baina gu gure jokoa egiten ahaleginduko gara, eta zaleen aurrean estreinaldi ona egitea itxaroten dugu", dio Intxaurreagak. ■ J.D.

Agustin Alkorta

•Futbol entrenatzailea



Bueltan gatoz

Heldu da eguna. Hasi da denboraldi berria eta honekin batera, golak, debateak, penaltiak, posturak, arbitroak, telebistak... eta abar.

Uda arraroa izan da: Mundialak zubi bezela egin du baina aspergarria izan da; gainera, alboko garaipena aguantatu egin behar izan dugu.

Baina ez da berdina: Liga, liga da. Zapatuek eta domekek hoberantz egingo dute eta amaituko dira udako asteburu aspergarriak. Iazko udagaz konparatuz, ez da egon mugimendu handirik: gogoratu CRonaldo, Kaká, Ibrahimovic.... Aurtan, Villa eta Ozilez aparte, gutxi. Lehenengo jardunaldiko emaitzek azken orduko fitxaketak baldintzatuko dituzte.

Eta gure Athletic, zer? Ba, fitxaje mediatikorik ez (eta badaramatzagu urte batzuk), erretiro inportanteak (Joseba eta Yeste), eta harrobia, harrobia eta harrobia. Formula honek lehenengo kolpea eman du Alakanten. Inor baino arinago hasten da entrenatzen eta badakizue zer esaten duen esamoldeak.... Aurtengoak, jokalar askoren konfirmazio urtea izan behar luke: Susaeta, Muniain, Iturraspe eta San Josek kalitatezko salto bat eman behar dute. Eta horiek beste "figurei" gehituta, talde handia egin dezakete zurigorriek.

Eta Erreala? Josebak eta Tamudok bikote ona egin dezakete baina, berriz ere, atzeritarrekin bete gara. Hiru edo lau (espainiarrak barne, noski) egon behar direla beti ados nago, baina... Ez dugu ahaztu behar harrobiak igo duela kluba lehen mailara. Kirol zuzendaritzak ez du pentsatzen horrela eta nik ez daukat erabakitze eskubiderik, bakarrik adierazteko pentsatzen dudana.

Euskal Kopan lehiatuko da Tabirako asteburuan

Finalera heltzeko gaurko eta biharko kanporaketak gainditu beharko ditu

Tabirako Euskal Kopan lehiatuko da asteburu honetan Santurtzin. Lehenengo kanporaketa gaur 18:00etan jokaturako da, Aurteneche Maquinaria taldearen kontra. Partidu horren ondoren, Zornotzak Askatuak taldea izango du aurrean, 20:00etatik aurrera.

Tabirakok aurrera egitea lortzen badu, Lan Mobel Isb taldearen kontra jokaturako du finalerdietan, zapatuan, 18:00etatik aurrera. Zornotzak gaurko aur-

karia kanporatzea lortzen badu, Santurtziren kontra ebatziko du finalerako pasea, bihar 20:00etatik aurrera. Finalak domekan 12:30etik aurrera jokaturako dira Santurtziko saskibalo kantxan. ■ J.D.

Zornotzak Askatuak eta Santurtzi taldeak ditu arerio finalerako bidean



Finala domekan jokaturako dute Santurtziren kantxan. K. Aginako

EUSKALDUNTZE MAILA GUZTIAK

HABEren mailak egiaztatzeko azterketak HE1/HE2/HE3

3.MAILA/EGA (aste barruan eta larunbata goizean)

EGA eta H2tik gorako ikastaroak

4.maila(4 H.E/P.L)

AUTOIKASKUNTZA

Eskaintza bereziak

AISA, dendariak, guraso taldeak, mintzapraktika..

HABEk homologatua

Ikasleentzako udalaren dirulaguntza

Durangaldeko AEK 946817349

Euskara?



ikasi euskara
eman izena  **aek-n**

Azterketa ofizialak eta titulu homologatuak

www.aek.org · 902 36 22 94

Durangoko Abarrak
AEK euskaltegia
946817349 abarrak@aek.org

Zornotzako AEK
946 73 43 70 zornotza@aek.org

Elorrioko Abizari
AEK euskaltegia
946582111 abizari@aek.org
Berriz, Abadiño, Zaldibar, Atxondo...

“Hasieratik eroso sentitu naiz; ez didate presiorik sartu”

Daniel Díaz (Argentina, Salta herria, 21 urte) martxoan fitxatu zuen Cafés Baqué. Harrezkero hainbat lasterketa irabazi ditu, eta talde profesional bik bera fitxatzeko interesagertu dute. Denbora gutxian bizi izan duen aldaketari buruz jardun dugu.



Martxoan etorri zen Daniel Díaz Euskal Herrira, eta urrian bueltatuko da Argentinara oporretan.

Azaldu egiguzu Argentinan izandako txirrindularitza bilbidea.

Han lasterketak gehienetan 23 urtez azpikoek eta elitekoek batera korritzen dute. Lehenengo urtean neure kontura ibili nintzen. Ondoren, Boliviako eta Argentinako talde banatan korritu nuen; azken horregaz Doble Bragadoko Itzulia irabazi nuen, nahiko itzuli garrantzitsua Argentinan.

Zelan fitxatu zintuen Cafés Baqué taldeak?

Argentinako selekzioko hautatzaileari hona etortzea gustatuko zitzaidala aitatu nion. Honek Unai Erentxunekin berba egin zuen, eta hark Ruben Gorospégaz. Aukera eman zidaten eta martxoan etorri nintzen.

Harrezkero, Euskaldun Torneoan hainbat lasterketa irabazi dituzu. Itxaroten zenuen?

Ez nuen espero. Kontua da iazko urrian dagoeneko banekiela

“Grinatsu etorri nintzen, baina ez nuen itxaroten halako emaitza onik hain azkar”

“Denboraldia ahalik ondoen amaitzera bideratuko ditut indarrak”

hona etorriko nintzela, beraz, hemengo denboraldiari begira egin nuen prestaketa. Urtarrilean eta otsailean hainbat lasterketa egin nituen entrenamendu moduan. Ondo egiteko grinaz etorri nintzelako, ilusioz nengoe-lako, edo ez dakit zergatik, hainbat lasterketa irabazi ditut.

Zelan egokitu zara taldera?

Ruben (Gorospé) oso ondo portatu da nigaz. Eroso sentitu naiz lehenengo egunetik, eta ez dute presarik izan nigaz. Taldekideak ere niretzat lan egin behar izan dutenean, beti ondoan izan ditut, eta esker oneko nago.

Alde handia dago Argentinako eta Euskal Herriko txirrindularitzaren artean?

Argentinan Buenos Aires eta Córdoba inguruetan dago mailarik handiena, eta inguru haiek oso lauak dira. Beraz, lasterketak haizeak edo sprintak erabakitzen ditu. Hemen, aldiz, ez

dago lasterketarik gutxienez mendate edo aldapa gogor bat ez duenik. Desberdina da. Ni, zorionez, Bolivian eta Kolonbian ere ibilitakoa naiz, eta han badaude mendateak.

Azken aldian gaixorik egon zara eta ezin izan duzu lasterketa batzuetan parte hartu.

Joan zen asteen Trittico Lombardo lasterketa korritu nuen, eta han ez nintzen guztiz ondo sentitu. Bost lasterketa gogor izan ziren, eta hona bueltatzean gaixotu nintzen. Ondorioz, joan zen asteburu osoan ezin izan nuen korritu.

Barikuan (gaur) bueltatuko zara.

Gogorik handienagaz bueltatuko naiz Lekeition. Euskaldun Torneoa amaitzeko sei lasterketa falta dira eta denetan ezingo dut parte hartu, baina noanetan topera ibiliko naiz.

Denetan ezingo duzu parte hartu, Mundialera zoazelako.

Hori da. Irailaren 24an Australiara joango naiz Argentinako selekzioagaz, 23 urtez azpikoan parte hartzeko. Lasterketa urriaren hasieran izango da. Zirkuitu laua da, baditu aldapa pare bat baina ez alde handirik markatzeko modukoak. Belgika eta Alemaniako selekzioentzat ibilbide aproposa da, arinak dira-eta.

Cafés Baqué abadiñar gazte bat ere badabil, eta aurren Bizkaiko txapeldun izan da, gainera: Borja Abasolo.

Hona heldu eta lehenengo eza-gutu nuen taldekidea izan zen. Beragaz egin nuen lehenengo entrenamendua. Txirrindulari moduan asko du emateko. Aspaldian aurrerapausuak eman ditu; nire iritziz, berak uste duena baino gehiago hobetu du. Beragan konfiantza apur bat gehiago bakarrik falta zaio lasterketa gehiago irabazteko.

Profesionaletan lehiatzeko eskaintzarik jaso duzu?

Bai, pro-tourreko talde bik interesa erakutsi dute. Abuztuan Joxean Fernandez Matxinek zuzentzen duen Footon-Servettogaz ibili nintzen, proba moduan; Getxoko lasterketa bat, Burgosko Itzulia eta Italiako klasiko bi korritu nituen. Oraingoz ez didate gehiago ezer zehaztu. Asteon, berriz, Eusebio Unzuereen Moviestar taldea ere interesatu da. Moviestarrek merkatu handia du Argentinan, eta interesatzen zaio txirrindulari argentinarrak.

Footon-Servettoren eskaintza baztertu egin duzu?

Ez, ezta gutxiago ere. Gaur egun profesionaletara pasatzea gaitza da, eta interesa erakutsi duten talde biak oso inportanteak dira. Beraz, ez dut eskaintzarik baztertu gura.

Beraz, telefonoak noiz joko zain zaude?

Txirrindularitzan tokatzen dira honelako egoerak. Horretako daude ordezkariak. Nik entrenamenduetara eta denboraldia ahalik ondoen amaitzera bideratuko ditut nire ahaleginak.

“Pro-tourreko talde bik interesa agertu dute; aukera aprobetxatu nahi dut”

Berehalako arrakasta honek bertigo apur bat sortzen du?

Apur bat, dena batera etorri delako, baina trena behin bakarrik pasatu daitekeela esan ohi da, eta profesionaletarako saltoa emateko aukerarik badago, aprobetxatu beharra dago.

Urte erdi daramazu Euskal Herrian. Zelan moldatu zara hemengo bizimodura?


Handik hona ekonomikoki alde handia dago. Krisia egonagatik, oro har, jendea Argentinan baino lasaiago bizi da. Bestalde, euskaldunok txirrindularitzarako afizioa handia duzuela ohartu naiz. Izareari dagokionez, zeharka ezagutuz gero, hotzak zarete-la ematen du, baina behin hartu- emana eginda, beti laguntzeko prest zaudete. ■ J.D.





Mancomunidad de la Merindad
de Durango
Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa

AMALURRA[>]



Durangoko Agenda 21eko batzarren txostenak, Interneten

**Udaleko webgunean,
zerbitzuen atalean dago
Tokiko Agenda 21en
informazio guztia**

**Laster irailetik aurrera egingo
dituzten batzarren egunak ere
jarriko dituzte 'Agenda' atalean**

2008tik hona egin diren batzarretako aktak udaleko webgunean ipini dituzte gura duenak kontsultatzeko

Gure inguruneak etorkizunean izango dituen aldaketek kezkatuta, hainbat durangarrek parte hartu dute orain arte Tokiko Agenda 21 egitasmoan. Azken bi urteotako batzarretan eta foroetan landutako gaiak orain Interneten ipini dituzte Durangoko udaleko web gunean (www.durango-udala.net). Aktak kontsultatzeaz gainera, webgunearen bitartez herritarrek euren iritzia eta ekarpenak egiteko aukera daukate.

